

*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**1**

**Gure txoko kuttuna**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 3. maila)

## TXANELA 3: LEHEN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

### “GURE TXOKO KUTTUNA”

**Oharra:** Unitate didaktiko honetan, atzetik datozenetan baino jarduera gehiago aurkituko dituzue. Hori dela eta, argibide batzuk eman nahi genituzke:

- Txanela proiektua jarduerak eskaintzeko orduan eskuzabala da; horrek ez du esan nahi bertan agertzen diren jarduera guztiak burutu behar direnik. Inondik inora ere ez. Hainbat arrazoi direla eta (ikastolak berezkoak dituen urteroko ekintzak, ikasleek etxetik ekarritako materialari eskaini beharreko arreta eta denbora...), ezinezkoa da jarduera guztiak burutzea (ez unitate honetan ez eta bestetan ere); beraz, aukeraketa bat egitea behar-beharrezkoa da. Proiektuak irakasleak esku artean proposamen zabala izan dezan bideratu nahi du eta, taldearen beharrian eta premien arabera, jardueren aukeraketa egiteko aukera eskaintzea.
- Urtero, ikasturte hasieran, lehenengo unitatea lantzen ari garen neurrian, gelaren antolaketa ere martxan jartzen da. Unitate honetan, gelaren antolaketarako hainbat proposamen azaltzen dira. Halere, jarduera hauek guztiak ez dira unitate honek dirauen hilabetean zertan egin beharrik. Nahi izanez gero, ikasturtea aurrera doan heinean eman diezaiekezue hasiera, eta bukaera dinamikaren baitan erabakiko duzue.

**Unitateren haria eta helburua:** Ikasleek bizi diren edo bere ikastola kokatua dagoen herri edo hiriaren bertatik bertarako azterketa egitea: kokapena, osaketa, antolamendua, zerbitzuak eta horien eskaintza, festak...

### PROIEKTUAK

• **Unitateko proiektu nagusia:**

- Norberaren edo ikastola kokatua dagoen herria edo hiria aztertu eta herriko zerbitzuen eskaintzei buruzko informazioa bildu eta beroriez lan egin ondoren, horma-irudiak egin.
- Taldean, informazio horretatik egokiena aukeratu eta egokitu, hartzaileak izango diren txikiei agerraldi batean adierazteko.

• **Urte osorako proiektuak:**

- Egunerokoa.
- Gelako hiztegitxoa: Hitz-berrilandia.
- Txokoak martxan jarri: Ipuinen txokoa, liburutegia, txoko zuria, konpositoreen txokoa, gutunen txokoa eta albisteen txokoa.

### IRTENALDIAK

- Herri edo hiriko auzoa edo auzoak bisitatzera.

## ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Bide hezkuntza	Kaleko seinale eta arauak.
Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Elkarrekin bizitzeko arauak

## EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Olerkiak. Joxean Ormazabal. Igarkizunak. J. M. Olaizola “Txiliku”. Lazkao txikiren pasadizoak. Joxean Ormazabal. Ipuinak: “Teseo eta Minotauroa” J. M. Olaizola “Txiliku”. Bertsoak. Mikel Mendizabal, Arkaitz Estiballez, Ekaitz Goikoetxea. Abestiak
Musika eta gorputz motrizitatea	Unitateko abestia. Joxean Ormazabal eta Imanol Urbieta. Tradiziozko abestia: “Zazpi Euskal Herriek”. Grazian Adema “Zaldubi”. Argixoren abestia. Joxean Ormazabal. Entzunaldia: Txulalai. Oskorri.
Ingurumena	E. H: Probintziaak eta hiriburuak. Norberaren herria. Elkartasun jolasak

## IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduerak sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduerara zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduerak ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektugailu, erreproduzitzaile, etab. erabili beharrik gabe.










Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 3

IKASLEAREN LIBURUA - 1. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	3	
18		Bazter guztiei begira	12	12	
27		Zazpi Euskal Herriek	16	16	
30		Argitxo	19	19	
36		Euskal Abezea	23	23	
38		Auzoak	23	23	
43		Nire txoko kuttuna	27	27	
49		Gure herriko alkatea	31	31	
60		Txulalai	37	37	

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Zer moduz? Aspaldiko, neska eta mutiko!

*Lan egiteko era: Talde handian*

Ikasturte berriari giro onean hasiera emateko, hiru elkartasun-jolas egitea proposatzen dizuegu, batez ere ikasle berriak baldin badituzue gelan, askotan, urduri egoten baitira eta jolas hauek tentsioak askatu eta talde-kohesioa eta elkar-ezagutza errazten baitute. Hiru elkartasun-jolas hauek ezagunak dituzte ikasleek, lehen zikloan jolastutakoak baitira, hala ere, oraingoan, ez dugu jolasean bizi izandako esperientziaren inguruko elkarrizketarik sortuko, jolasteari besterik ez diogu ekingo.

### 1. Txiklea

Ikasle bakoitza txikle zati bat izango da, gelatik zehar ibiliko dena “ñan-ñan” erritmorra, hanka biak batera dituela saltoka. Beste baten ondotik pasatzean, elkar ukitzen badute, txikle zatiak itsatsi egingo dira eta elkarrekin egingo dute salto. Gela guztia txikle handi batean biltzen denean eta txikle ore horrek gelan zehar salto batzuk eman ondoren bukatuko da jolasa. Iraupen laburreko eta dibertsio handiko jokia da hau, ikasleen arteko kohesioa erraz lortzen duena.

### 2. Besarkada musikala

Ikaskideen harremanak estimulatu eta talde bezala sendotzeko, hitzik gabeko komunikaziozko elkartasun-jolasa egitea proposatzen dizuegu.

Ikasleak gela zabal batetik zehar saltoka ibiliko dira, entzuten duten musikaren erritmoari jarraituz. Musika eteten den lehenengo aldian (irakasleak eteten du egoki ikusten duenean), ikasle bakoitzak hurbilen duen ikaskidea besarkatuko du eta bikotea jarraituko dute musikaren erritmoan saltoka eta dantzan. Musika berriz isiltzean, ondoan duten beste bikotea besarkatu eta launaka dantzatuko dute, gero, zortzinaka eta horrela gela guztia besarkada bakar batean bildu arte.

### 3. Aurkezpenak

Ikasturtea hasiera doanean, ohikoa izaten da ikasle berriren bat edo gehiago izatea gelan; horregatik, aurkezpen-joko hau erabiliko dugu taldekideek elkar hobeto ezagutzeko.

Ikasle bakoitzak liburuan bere aurkezpen-txartela egin beharko du; horretarako, bere izena hizki larriz idazteaz gainera, bere zaletasuna edo zaletasunak adierazten duen irudia egin beharko du.

Bukatzerakoan, biribil handian jarriko gara eta, txandaka, gure aurkezpen-txartela besteei erakutsiz, geure burua aurkeztuko dugu:

- “nire izena ... da” edo “ni ... naiz”

- “eta nire burua irudikatu dut, ... egitea oso gustukoa dudalako” edo “nire zaletasunak ...”. ”Zaletasun asko ditut baina denen artean gogokoena ...”.

Irakaslea izan daiteke joko horri hasiera eman diezaiokeena, bere izena eta zaletasunak adierazten dituen marrazkia erakutsita eredugarri izan baitaiteke.

Ikasleren batek adierazpen-zailtasunak izanez gero, irakasleak galderen bidez lagun diezaioke. Ikasle berriak izanez gero, horien aurkezpena era berezian mimatu beharko genuke, taldean txertatzen laguntzeko. Marrazkiak lagungarri gerta dakizkiguke, horiek ikasleen auto-kontzeptuari eta nortasunari buruzko pistak emango baitizkigute.

## **2. Oporren inguruko elkarrizketa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Ikasturtearen lehenengo eguna duzue, ohikoa den jarduera egitea proposatzen dizuegu, hau da, oporren inguruko elkarrizketa martxan jartzea. Haurrak kokatu elkarri aurpegia ikusten diotela (biribilean edo), garrantzitsua baita komunikazioa era egokian gauza dadin. Non izan diren, zer egin duten oporretan, zer moduz pasatu duten... Nahi izanez gero, ikasleei oporretan ateratako eta gustukoak diren argazkia gelara ekartzea proposa diezaikegu. Egun hartan igarotako mementoa orritxo polit batean itsatsiko dute eta bertan idatziko orduko pasadizoa. Ondoren, kartulina batean jar ditzakezue guztiak.

## **3. Aurreko urteetan egindakoa irakasleari kontatzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Ziklo hasiera honetan irakaslea berria izatea oso posible denez, Txanela proiektuari dagokionez ezjakinaren papera eginez, ikasleei galdetuko die aurreko zikloan egindakoaren berri. Horrela, hurrek gogora ekarriko dituzte egindako proiektuak, irteerak, landutako gaiak, etab.

Azkeneko galdera elkarrizketaren baitan ateratzen ez bada, behintzat, irakasleak galde diezaiela gela nola antolatzen zuten, txokoak, ardurak, etab, horrek bidea emango baitigu aurten gelaren antolaketa martxan jartzeko.

## **4. Gelaren antolaketa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Ikasleekin batera gela antolatzen eta errutinazko ekintzak zerrendatu eta banaketa egiten hasiko gara. Txokoei dagokienez, Txanela proiektua landu duten ikasleek anitz ezagunak dituzte, hala ere, lagungarri gerta dakizuen, ondoren duzue horiei buruzko informazio labur bat.

### **Liburutegia**

Gelako liburutegia antolatzeari garrantzi handia eman izan diogu beti, funtsezkoa da txoko hau. Gure proposamena ahal duzuen liburutegi zabalena jartzea da, (gela bakoitzean posible ez bada, espazio komun baina gertuko bat izan daiteke) bertan komikiak, ipuinak, informazio liburuak, hiztegiak, aldizkariak eta egunkariak jarri.

Ikastolan, egunero-egunero, etxera joan baino bost edo hamar minutu lehenago, gelako liburuak hartzeko aukera emango diegu hurrei. Horretarako, haur bakoitzaren liburutegi-fitxa bat prestatuta eduki behar duzue, etxera eramaten dituen liburuak apunta ditzan.

Liburutegia (nola txoko zuria) hornitzeko, hurrek etxetik liburuak ekar ditzakete. Izena jar diezaietela, epe bat pasa ondoren bueltan eramantzen dituzten.

Liburuen erabilerari buruz hainbat aholku ematea ere garrantzitsua da. Balio ekonomikoaz eta afektiboaz (gozamina, oroimenak, kontsultarako eduki ahal izatea...) hitz egin. Eta nola zaindu behar ditugun guztien artean hitz egin (eskuak garbitu, poliki erabili, bertan ez idatzi eta ez margotu... adib.). Etxera eramanez gero, bertan behar adina denbora eduki baina ez gehiago...

### **Gutunen txokoa**

Hurrek etxetik ekarritako gutunak, edota ikastolara heltzen direnak itsasteko toki egoki bat prestatuko dugu “Gutunen txokoa” izenburupean. Koloretako kartulina handiak aerofixekin forratzen baditugu, zinta eransgarria errazago kendu ahal izango dugu, eta kartulina gehiago erantsiz txokoa handitzeko aukera emango digu.

Ziklo honetan ere, jarraituko dugu irakasle eta familien arteko erlazio idatzia bultzatzen, hizkuntza idatzia era funtzional batean lantzeko, hau da, komunikatzeko tresna bezala. Baina aurren, ikasleek beraiek nahi dituzten gutunak etxetik idatzita ekartzea bultzatuko dugunez, *Gutunentzako txokoa* ikasleek ekarritakoek lehentasuna izango dute.

Txoko honek, tokirik edukiz gero, behintzat, beste aukera bat eskaintzen digu: GURASOEKIN eta GURASOEN ARTEKO komunikaziorako aukera. Gela bakoitzak ez du derrigorrez berea eduki behar, gurasoentzako informazio orokorra jartzeko kortxo bat ere egokia izan daiteke, hainbat gauza jartzeko: menua, irtenaldiak, festarako gonbiteak eta beharrak, hezkuntza aldizkarietako artikuloak, gurasoen ekarpenak...

### **Albisteen txokoa**

Beste espazio bat ALBISTEEN TXOKOA izatea proposatzen dugu. Aurreko txokoa bezala, izena txartel batean jarri.

Irakasleak egunero EGUNKARIA gelara ekarri jarraituko du, eta liburutegian, *Euskal prentsaren* tokia edukiko du, nahi duten hurrek ikus edo irakur dezaten. Egunkariarekin batera komenigarria da euskaraz argitaratzen diren beste aldizkariak ere edukitzea: herri aldizkaria, ikastolako haur/helduek argitaratzen dutena, *Argia*...

Albisteren batek atenzioa ematen badigu, moztu, irakurri, eta *Albisteen txokoa* itsatsiko dugu. Jarduera horrek hainbat gairi buruz hitz egiteko aukera emango digu.

Era berean, ikasleak lantzen ari garen gaiekin zerikusia duen edo, beste barik, bere interesa piztu duen edozein albiste etxetik ekartzera animatuko ditugu.

### **Txoko zuria**

Gelan, ikasleek TXOKO ZURIA izenez ezagutzen duten espazio bat uztea gomendatzen dizuegu. Txoko hori gai bakoitzean landuko ditugun proiektuei espazio bat eskaintzeko pentsatua dago. Edozein motatako materiala izan daiteke baliagarria eta aproposa txoko horretan jartzeko (bideo, liburu, argazki, marrazki, aldizkari, panpina, artelan, poster...), betiere, gaiarekin zerikusia badu. Urteek erakutsi digute txoko hori gainezka egoten dela eta hurrentzako oso motibagarria dela, edozein mementotan informazio bila bertara jotzeko aukera polita ematen baitu.

Dagoeneko, txoko hori martxan jarri duten irakasleen balioespenetan, aniztasunari eta erritmo desberdinei erantzuteko oso baliabide aproposa dela jaso ahal izan dugu. Lanak azkarrago burutzen dituzten hurrek, txoko honetara jotzeko ohitura garatu omen dute, eta gaiaren inguruko informazioa, literatura, etab. irakurtzen eta behatzen ari diren bitartean, irakasleak mantsoxeago dabilzan hurrei kasu egiteko aukera izaten omen du.

### **Gure konpositoreen txokoa**

Txoko honetan, urtean zehar lantzen ditugun entzunaldiak eta horiek konposatu dituzten egileei buruzko informazioa (irusia, biografia...) jarriko dugu.



## **Ipuinen mundua**

Ipuinak ekoizteko lagungarri izan dakigukeen edozer informazio landu ahala: ipuinen egitura, hasierako eta bukaerako formulak, denbora-antolatzaileak, adjektiboak, etab., kartulinetan idatzi eta txoko honi dagokion espazioan itsatsiko dugu, ikasleek euren ipuinak ekoizteko orduan, behar dituzten erreferentziak, bertan, begien bistan izan ditzaten.

### **5. Azalari behatzea eta elkarrizketa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

*Konstanteak: Ulermena*

Urtean zehar, gai bakoitzari hasiera emateko, liburuaren azalari behatzea eta elkarrizketa bultzatuko ditugu, aurreikuspen-estrategiak landu eta haurrak motibatzen asmoz. Azala da unitate bakoitzaren egituren hasierako jardueri sarrera ematen diena. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazonatuz eta iragartzeari bidea emanez.

- *Zer adierazten digu izenburuak?*
- *Zer da irudian agertzen dena? Izendatu elementu guztiak.*
- *Non daude hor agertzen diren pertsonaia guztiak? Zer erlazio izango dute bata bestearekin?*
- *Zer gai landuko dugula uste duzu?*

Bukatzeko, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

### **6. Komikia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.*

Tough-ek hizkuntza-funtzioak zazpi ataletan banatzen ditu. Ereduan, 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak besterik ez daude, aurreneko biak gelako eguneroko harremanean garatzen baitira. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, egoera edo irudi bakoitzaren inguruan egokienak aukeratuz.

Funtzio horiek azalaren behaketan martxan ipintzen ditugun bezala, edozein hormirudi, komiki, marrazki, gelako egoera eta abarretan martxan jartzeko aukera dugu. Ahaztu behar ez zaiguna da, hizkuntza garatzeko asmoz, erabili egin behar direla eta egunero gelako bizitzako mila egoera (arazoak, liskarrak, deskribapenak, kontaktak...) egokiak izango ditugula funtzio jakin bat martxan jartzeko.

Hasierako jardueren artean aurkitzen den komikiaren funtzioa, beste batzuen artean, unitate horretan landuko den gaian kokatzea da. Bertan agertzen diren pertsonaiak unitate guztietan zehar hainbat orrialdetan agertuko dira, unitatea garatzeko

bidea emango duen istoriotxo batean murgilduta. Istorio horretan sortutako egoerek gaiaren ardatzari lotura emateaz gainera zentzua ere ematen baitiote.

Aurten ikasleentzako ezezagunak diren pertsonaiak aurkituko ditugu komikian. Ikasleentzat ezezaguna ez dena komikiaren funtzioa da eta komikia irakurtzeko orduan jarraitzen den prozedura.

Komikia irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatuko diogu, eta horren inguruan elkarrizketa sortuz, bi hizkuntza-funtzio jarriko ditugu martxan: arrazoitzea eta iragartzea:

*- Zein da izenburu honen esanahia? Zergatik? Posible al da bide bat ezkutatzea? Izenburuan jakin dezakegu zer gertatuko den komikian? Zer gertatuko dela uste duzue?*

Ondoren, ikasleek bakarka irakurriko dute komikia. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun; beraz, eman iezaiezue behar beste denbora, hori sakonki beha dezaten.

Gero, taldean, komikiaren inguruko elkarrizketa bultzatuko dugu eta Tough-en hizkuntza-funtzioak martxan jarriko.

### TOUGH-EN HIZKUNTZA FUNTZIOEN SAILKAPENA, 3., 4., 5., 6. ETA 7. ATALAK

#### **3. ORAINGO ETA LEHEN BIZI IZANDAKO ESPERIENTZIEN KONTAKETA**

- 3.1. Partaideak izendatzea.
- 3.2. Xehetasunak aipatzea.
- 3.3. Izandako gorabeherak aipatzea.
- 3.4. Gertakizunen sekuentziak aipatzea.
- 3.5. Konparazioak egitea.
- 3.6. Elkarrekin zerikusia duten gauzak ezagutzea.
- 3.7. Gorago aipatutako ezaugarrietako batzuk erabiliz, azterketa egitea.
- 3.8. Gertakizun baten esanahi nagusia ateratzea edo ezagutzea.
- 3.9. Esperientzien esanahiei buruzko hausnarketak egitea, haurraren beraren sentimenduak barne.

#### **4. ARRAZOIKETA LOGIKORANTZ**

- 4.1. Prozesu baten azalpena.
- 4.2. Harreman kausalak eta menpetasunezkoak ezagutzea.
- 4.3. Arazoak ezagutzea eta horien irtenbideak ezagutzea.
- 4.4. Iritziak eta ekintzak arrazoitzea.
- 4.5. Gertakizunei buruzko hausnarketa egitea eta ondorioak ateratzea.
- 4.6. Hastapen edo printzipioen ezagutza.

#### **5. IRAGARRI**

- 5.1. Gertakizunen aurreikuspena eta horiei aurrea hartzea.
- 5.2. Gertakizunen zehaztasunei aurrea hartzea.

- 5.3. Gertakizun-sekuentzia batzuk aurrez adieraztea.
- 5.4. Arazoak aurreikustea eta horiek izan ditzaketen irtenbideak aurkitzea.
- 5.5. Ekintza maila alternatiboak aurreikustea.
- 5.6. Ekintza edo gertakizunen ondorioak aurrez ateratzea.

## 6. PROIEKTATU

- 6.1. Besteen esperientziarako proiektzioa.
- 6.2. Besteen sentimenduetarako proiektzioa.
- 6.3. Besteen erreakzioekiko proiektzioa.
- 6.4. Bizi izan ez diren egoerarako proiektzioa.

## 7. IMAJINATU

- 7.1. Bizitza errealean oinarritutako irudimenezko egoera bat kontatzea edo azaltzea.
- 7.2. Ameskerietan oinarritutako irudimenezko egoera bat kontatzea edo azaltzea.
- 7.3. Asmatutako istorio bat kontatzea edo antzeztea.

- *Pertsonaiak izendatzen, iragartzen eta arrazoitzen: Nor dira pertsonaia hauek? Zein dira euren izenak? Zer harreman mota izango dutela uste duzu euren artean? Zer adin izango dutela uste duzue? Zergatik?*
- *Komikiaren haria (esperientzien kontaketa, arrazoitzea, proiektatzea): Zer gertatu zaie pertsonaiei? Zergatik gertatu zaie? Ondo egin al dute euren bizilekutik hainbeste aldentzean? Zuek ere bizikletaz ibiltzen al zarete? Jartzen al duzue kaskorik? Zertarako erabiltzen dira kaskoak? Komenigarria al litzateke guztiok kaskoa erabiltzea bizikletan ibiltzeko? Galdu al zarete inoiz? Zer sentitzen da horrelakoetan edo zer sentitzen dela uste duzue? Zer egin behar da bat galtzen denean? Eta horrelako egoerarik gerta ez dadin?*
- *Errepara iezaiozue bigarren binetari; nola ditu Mainerrek atzamarrak? Zergatik edo zertarako?(arrazoitzea)  
Ekimendi auzoko baserrira heldu direnean, leihotik begiratu eta ikaratu egin dira? Zer ikusi dute, bada, barruan horrenbeste ikaratzeko?*
- *Ba al dakizue zer den antzara? Ikusi al duzu baten bat noizbait? Nolakoak izaten dira, itxuraz eta izaeraz? Eta katuak? Normala al da baserrietan horrelako animaliak izatea?(Esperientzien kontaketa)*
- *Martinek "Erdi barrura" esaten die haurrei. Ezagutzen al duzue "erdi" hitza? Zer esan nahi du? Noiz erabil daiteke?*
- *Mainerrek bederatzigarren binetan totala hitz egiten du? Zergatik ote da? Gertatu al zaizue hori inoiz? Zer egoeratan? Zer egin behar dela uste duzue hori saihesteko?(Arrazoitzea eta proiektatzea)*
- *Zer harreman egongo dela uste duzu Kleoren eta Martinen artean? Zer eman die Martinek gure lagunei? Zertarako erabiliko dutela uste duzue? (Iragartzen)*
- *Ba al dakizue zer den eta zertarako erabiltzen den plano bat? Zuek galdu al zarete inoiz zuen herri edo hirian? Normala al da hori gertatzea? Gertatzekotan zergatik gertatzen dela uste duzue? Zer egin beharko genuke hori gerta ez dakigun?(Esperientzien kontaketa eta arrazoitzea)*

- *Azken binetan, Maider, Xabier eta Mei Li etxerantz abiatu dira? Uste duzu helduko direla etxera ilundu aurretik? Zer gertatuko zaiela uste duzu? (Iragartzen)*
- *Gustuko al dituzue aurtengo pertsonaia berriak? Zergatik? (Arrazoitzea)*
- *Zein dela uste duzue unitate honetan landuko dugun gaia? (Iragartzea)*

Solasaldiaren ostean, pertsonaien banaketa adostu eta, talde handian, ozenki irakurtzeari ekingo diogu, hizkuntzaren baliabideei emango diegu garrantzia.

Komenigarria da ikasleei birgogoratzea, arreta berezia jarri beharko dietela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...), ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gainera doinuaren garrantzia azpimarratuz.

## **7. Olerkia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 4. or.*

Bakarkako irakurketa eginez, Joxean Ormazabalen olerkia gozatzen saiatuko gara. Ondoren, talde handian, olerkian aipatutakoaz hitz egingo dugu, mezuaren edo gaiaren inguruan.

Bukatzeko, olerkia ozenki irakurri eta dramatizatzeko aukera emango diogu ikasleren bati, ahoskeraren eta intonazioaren garrantzia azpimarratuz eta zainduz.

## **8. Aurre-ezagutzak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.*

Hasteko, ikasleei orrialde horretan jartzen duena irakurtzeko eta hausnartzeko tartea emango diegu. Ondoren, elkarrizketa sortuko dugu, aurre-ezagutzak martxan jartzeo asmoz:

- *Pertsonaiak diren bi animalia hauen izaeraren inguruko elkarrizketa bideratu: Xarpak zergatik ezagutzen duela uste duzue herria eta Morgane ez*
- *Herri eta hiriaren arteko berdintasunak eta ezberdintasunak ahoz aipatu, bakoitzaren ezaugarriak, abantailak...: Zer ezberdintasun dago hiri eta herri baten artean? Zuen artean, zenbat bizi zarete herrian eta zenbat hirian? Nolako da zuen herria edo hiria? Zer berdintasun eta ezberdintasun dago bataren eta bestearen artean?...*
- *Norberaren herriaren inguruan: Ezagutzen al duzue ondo zuen herria edo hiria?...*

Bigarren mailan, norberaren herriaren ikerketa eta txostena osatzea zen garatu zuten proiektuetariko bat; beraz, ipin itzazue martxan aurre-ezagutzak, eta ekarri gogora egindakoa eta ikasitakoa.

## 9. Proiektuaren aurkezpena

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.*

Proiektuaren aurkezpena egiten den orrialdean, bonbilla handi bat agertuko zaizue proposatzen den proiektuaren argibideekin batera. Kasu honetan, proiektua norberaren edo ikastola kokatua dagoen herri edo hiriaren auzo baten edo auzoen azterketa egitea da, eta baita herri edo hiri horretako zerbitzuen eskaintza aztertzea ere. Ondoren, bildutako informazioa landu ondoren, horma-irudiak egin eta haur txikiei agerraldi batean ahoz kontatu. Proiektua unitatea landu ahala burutuz joango zarete, orrialde ezberdinetan bonbilla txiki baten ondoan, proiekturako baliagarria izan daitekeenaren argibideak emango zaizkizue. Orrialde honetan, talde handian, proiektuaren izaera argituko dugu eta baita hori burutzeko bete beharreko urratsak ere.

## 10. Ikasnorabidea

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.*

Ikasnorabideak ematen dio bukaera hasierako jardueren multzoari. Lehen zikloan ez bezala, aurtun unitate bakoitzaren ikasnorabidea aurkituko duzue beti bi orrialde hauetan. Nahiz eta proiektu honetan edukiak modu globalizatuan eta era integratuan azaldu orrialde ezberdinetan zehar, ikasnorabidean, goitik beherako irakurketa batean, hiru bloketan bereizita agertuko zaizkizue: lehenik, ingurumenari dagozkion eta landuko diren eduki nagusiak; hizkuntzari dagozkionak, ondoren, eta, azkenik, arte hezkuntzari dagozkionak.

Irakurketa bertikalaz gainera, ikasnorabidea horizontalki irakurtzeko ere pentsatuta dago. Irakurketa horrek sekuentziaren atal bakoitzean zer landuko den jakitea ahalbideratuko du, bai ingurunean, baita hizkuntza eta arte hezkuntzan ere. Atal bakoitza kolore batekin bereizita dago.

Ikasnorabidearen funtzioa eta helburua ikasleek ikasten ari diren jabetzea da, ikasketaren auto-erregulaziorako balioko dien tresna izatea. Landuko dutena alde aurretik ezagutzen, zer, nola eta zertarako ikasiko duten, eta landu ostean, ikasitakoari zentzu berria emateko aukera izango dute. Beraz, joan-etorrian erabiliko dugun tresna izango da.

Lehenengo irakurketa batean, ingurune arloko irakurketa bertikala egitea proposatzen dizuegu, ikasleak jabe daitezen, unitatearen sekuentzia tematikoa nondik norakoa den.

Ondoren, garapenean sartu eta gaia lantzen hasi aurretik, lehenengo atalaren irakurketa horizontala egitea proposatzen dizuegu. Behin unitatearen garapenean murgilduta eta gaia lantzen hasita gaudenean, atal bakoitza bukatzean berriro ere ikasnorabideari erreparatuko diogu, landutakoari zentzu berria emanez. Hala ere, edozein jarduera egiten ari garenean, jakin ezazue edozein memento izan daitekeela egokia ikasnorabidera jotzeko, egiten ari garenaz jabetzeko asmoz. Horrekin, ikasleak metakognizioaren lehen urratsak ematen ari direla esango genuke, eta hasieran ikasnorabidearen interpretazioa zaila gertatzen bazaie ere, gerora begira oso baliagarria suertatuko zaie.

Horren guztiaren ondorioz, komenigarria da unitatearen ikasnorabidea din A-3 paperean koloreetan fotokopiatzea, plastifikatzea eta gelan begi bistan izatea.

Haurrak tresna horrekin harremanetan jartzen has gaitzke dagoeneko. Galdetu zer ote den orri horietan dagoena. Beha diezaiela, eta beren moduan azal dezatela orri horiek zertarako ote diren, zer zati ikus daitezkeen...

Ondoren, esplikatu hurrei tresnak zertarako balio duen eta noiz eta nola erabiliko dugun.

## **11. Txoko zuria**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Behin ikasleek argi dutenean zein den egingo duten proiektua eta baita proiektu hori burutzeko zer ikasi behar duten ere, txoko zuria hornitzen hasteko unea heldu da. Hau da, taldean hitz egin ezazue bakoitzak gaiarekin zerikusia duen zer elementu izan dezakeen etxean gelara ekartzeko eta ekarri ahala txokoan jarri.

## **12. Etxekoentzat eskutitza**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Aurreko ikasturteetan bezala, hiruhilekoa hasten denean, landuko diren gaien sekuentzia adierazten duen eskutitza bidaliko diegu gurasoei (ikus web orrian, gidak, gurasoen atalean). Bide batez, “Txoko Zuria”rako materiala eskatzeko aprobetxatuko dugu. Ikasleei adierazi zein den gutun horren edukia, eta dagoeneko ikasnorabidea piska bat ikusi dutenez, etxekoei egingo dugun lanaren berri eta “Txoko Zuria” hornitzeko beharra adieraz diezaieten eskatu.

## **13. Elkartasun jolasa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 5. or.*

Lehenengo mailan hasi eta Lehen Hezkuntza osoan lantzen jarraituko duten elkartasunean oinarritutako jolasak ditugu hauek. TXANELA proiektuaren helburu nagusia ikaslearen garapen integrala (garapen motorea, kognitiboa, komunikatiboa, afektiboa eta gizarteratzekoa) izanik, garrantzi berezia eman nahi izan diegu jolas hauei, hainbat prozesu sozial, emozional eta kognitibo martxan ipintzen direlako eta prozesu horiek zuzenki erlazionaturik daudelako ikaslearen garapen global eta integralarekin.

Taldean elkartasunezko elkarrekintza bultzatzea da helburua, hurren jarrera gizatiarra, garapen emozionala eta sormena sustatzea, beste kideekin batera lan egitea helburu bakar eta bera lortzeko eta, indibidualismoan eta konpetitibitatean oinarritutako hezkuntza eredia saihestea.

Irakurgaietan bertan adierazten den bezala, jolas hauek guztiak aurrera eramateko erritual bihurtu diren urratsei jarraitu behar zaie.

Hasteko, ikasleek bakarka irakurtzeko aukera izango dute eta, ondoren, urratsak betez joango gara.

Itsu-mutsukako jolas hau konfiantzazko jolasen artean kokatzen dugu, norberaren buruarengan eta besteenganako konfiantzan. Hori lantzeko arrazoia

komikiko hurrek, galtzean, senti zitzaketenen antzekotasunak bilatzea da, haiek ere galduta eta itsu-mutsuka ibili baitziren ordu batzuetan. Adierazi hori ikasleei.

Azken urratsa elkarrizketa da; beraz, hona hemen, adibide moduan, aukerako galdera batzuk:

- *Zer moduz sentitu zarete jolasean? Zer sentimendu izan duzue?* Mesfidantza, beldurra, lasaitasuna norbaitek eramaten ninduelako, ardura norbait gidatzeko orduan... Ikasleek, banan-banan, euren esperientzia hitzen bidez adieraziko diete taldekideei.
- *Sentimendu horiek, bizitzan, beste noizbait ere izango zenituzten, ezta? Noiz? Jarri adibideren bat. Zergatik izaten ditugula uste duzue horrelako sentimenduak? Zer egiten duzue horrelakoetan? Zer egin beharko litzateke?...*

Jolas hauek, norberaren irudia ezagutzen laguntzeaz gainera, autokontzeptua lantzen eta hobetzen ere laguntzen dute, konfiantza areagotuz, komunikazioa zabalduz, taldearen parte izateko elkartasun-sentimendua handituz; horrela, ikasleari bere gaitasunak garatzeko bideak irekiko baitzaizkio.

#### **14. Pertsonaien idatziak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.*

Bi orrialde hauetan zehar gure pertsonaiek idatziriko testuak aurkituko ditugu. Bertan, komikian aurkeztutako egun hartan gertatutako informazioa emateaz gainera, pertsonaiak sakonago ezagutzeko aukera daukagu, nor diren, zer harreman duten euren artean, etab.

Komikia irakurri ostean izandako elkarrizketan, ikasleek hainbat hipotesi formulatu zituzten pertsonaien inguruan; bada, orain dute horiek baieztatzeko edo ezeztatzeko aukera. Ekar itzazue gogora orduko hipotesiak eta, ondoren, eman ikasleei testuak irakurri, behatu eta aztertzekeo tartea, eta baita jarduera burutzeko ere, hau da, euren ustez zein den pertsonaia bakoitzari dagokion testua ikusteko. Ondoren, berriro ere elkarrizketa bultzatuko dugu gai ezberdinen inguruan:

- Hasteko, galdetuko diegu jarduera nola burutu duten eta zertan oinarritu diren hori egiteko, hau da, aukera justifika dezatela eta baita erabili dituzten estrategiak ere (pistei jarraitu, eliminazioz...).
- Horren ostean, pertsonaien inguruan formulatu genituen hipotesiak bete diren edo ez.

Testuak komunikatzen duten horretan oinarrituz:

*Iragarri: Nora joango dela uste duzue Kleo bidaiari? Zertara? Zein izango da bere ogibidea? Eta Martinena? Zer harreman dago Maider, Mei Li eta Xabierren artean? Zertarako emango zien Martinek ipuina?...*

Testu moten inguruan: Komunikatzeko bost adierazpide erabiltzen dituzte pertsonaiek. Izendatu eta aipatu, denen artean, bakoitzaren ezaugarri nagusiak (hartzailea zein den, testu bakoitzaren funtzioa, letra motak, erabilgarritasuna...), abantailak, desabantailak, etab.: mezu elektronikoa, egunerokoa, marrazkia, irakatsien koadernoak eta agendatxoak. Egunerokoari arreta berezia jarriko diegu, ikasleei galdetuz ea dakiten zer den, zertarako erabiltzen den, noizbait idatzi duten eta baita egunerokoa izatea gustatuko litzatekeen ere.

Xabierrek idatziriko egunerokoan oinarrituz, eztabaida sakona bultzatuko dugu balio batzuen inguruan:

- Zergatik egiten diete errieta gurasoek haurrei? Zuzena ikusten al duzue gurasoen jarrera? Errieta horren atzean zer mezu dagoela uste duzu? Maite zaituztegu eta zuen on izateak arduratzen gaituelako egiten dizugu errieta, bereiz dezazun guretzako zer den inportantea eta zer ez, zer uste dugun ondo dagoela eta zer ez... Zuei egiten al dizuete errietarik? Noiz? Zergatik? Eta zuzen ikusten al duzue? Zuek nola sentitzen zarete horrelakoetan? Eta nola sentituko direla uste duzue zuen familiakoak? Baliarik ba al du zuengan gurasoek egindako errietak? Zer jarrera hartzen duzue hurrengoan horrelako egoera baten aurrean? Adibideak jartzeko eta argudiatzeko eskatuko diegu ikasleei.

### **15. Lan-koadernoko sarrera olerkia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koaderno, 3. or.*

Bakarka, hasieran, eta, gero, taldean, lan-koadernoko sarrerako olerkia irakurriko du ikasle batek ozenki, intonazio egokia emanaz. Ondoren, bakoitzak bere izena jarriko du.

### **16. Egunerokoa: datak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koaderno, 4. or.*

Bakarka, ikasleek azalpen-testua irakurriko dute, erdua aztertu eta orrialde horretan egitea eskatzen zaiena ulertuz. Gero, eginbeharrekoa ulertu duten galdetuko diegu, hala bada, bakarka, jarduera burutzeari ekin diezaiokete, bestela bada, taldean, argibideak emango dizkiegu. (Ikasleak ohartarazi ordena iraupen luzeenetik laburrenara doala, hau da: urtea, hilabetea eta eguna, baita urtea adierazten duen azken zenbakiaren bukaera bokalean edo kontsonantean bukatzearen arabera, -ko edo -eko kasu marka idatzi behar dutela, hilabeteak letra xehez...).

Bukatzen dutenean, lehenik eta behin, autozuzenketa bultzatuko dugu, hau da, ikasle bakoitzak bere lanari arretaz behatuz zuzenduko du, gero, bi lagun artean trukatu egingo dituzte lan-koadernoak eta bata besteari behatu beharko dio eta bere egileari ahoz adierazi zer zuzendu behar duen eta zergatik.

Jarduera hau aprobeztatuz, hilabeteak, asteko egunak eta horiek dituzten egun kopuruak jolas modura eta abestiak gogora ekarriz erreparatzeari ekingo diogu: Ordenan adieraziz, atzetik aurrera, gaur astelehena bada... etzi zer da? Eta atzo? Eta bihar? Eta herenegun? Eta etzidamu? Erakutsieziaie zue hilabete bakoitzaren egun kopurua zenbatekoa den, eskuetako hatz-koskorak erabiliz.

### **17. Egunerokoa edota pentsamenduen koaderno**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

Urte osorako proiektua izan daitekeen egunerokoa martxan jartzea proposatzen dizuegu. Ikasle bakoitzak egunerokoa idazteko bakarrik izango den koadernotxo bat (polita) izango du, ikasleek eurek eraikitakoa, horrela nahi baduzue. (Barrualdean folioak, eta aurreko eta atzeko azala egiteko, kartulina bat erabil dezakete, tenperekin nahiz beste material batekin marraztu edo apaindu ostean, plastifikatu eta folioekin batera grapatu eta koaderno itxura emanda).



Eguneroko horretan, ikasleek egunero eta bakarka, goizeko lehen orduan, zerbait idatziko dute, beraiek nahi dutena: gertakari bat, berri bat, sentimendu bat, pentsamendu bat, kezka bat, iritzi bat, zerbait interesgarria edo garrantzitsua, iraganekoa edo orainaldikoa... Tarteka, denbora izanez gero, apain dezakete marrazkien edo beste teknika batzuen bidez (bidean aurkitu duten kromoa itsatsiz...). Eta idatzi duen hori berrikusi eta zuzentzeko ohitura har dezan landuko dugu. Eguneroko dotorea lortu behar dugula adierazi guztiei eta mimoz zain dezaten eskatu.

Ikasleek idatzi duten hori, hartzaileari dagokionez, era askotara bidera dezakegu. Egunerokoa gauza intimoa izan daiteke eta kontu handiz erabiliko ditugu gauza horiek. Edozein erabaki hartzen dugula ere, “negoziatua” eta “kontsentsuatua” izan beharko du. Hona aukera batzuk (hauen arteko konbinazioak ere egin daitezke):

- Idatzitakoa berrikusi ondoren, irakasleari emango diote irakur dezan eta, ondoren, bien arteko elkarrizketa txikia sortuko dute idatzitako horren inguruan.
- Txandatu, haurren idatzi labur horiek egileak edota tutoreak (haurraren baimenarekin, noski) taldeari ere irakur diezazkioke. Astean pare bat egunetan –tutoretza ordua ere horretarako egokia izan daiteke– hartu horretarako denbora pixka bat. Taldean idatzitakoaren inguruko elkarrizketatxoa gara daiteke. Ikasle guztiek hartuko dute parte fisikoki eta entzuketa aktiboa eginez, baina, hasieran, ez itzazue hitz egitera derrigortu, denborarekin eurek parte hartu nahi izango dute.  
Korroan jarrita, ikasle guztiek bata bestearen aurpegia ikusten dutela burutuko genuke solasaldia. Nahi duen ikasleak egunerokoan idatzia duen sentimendua, kezka, berria... irakurtzeko edo ahoz kontatzeko aukera izango du, hau da, irakasleari kontatu beharrean beste ikaskideei kontatu edo irakurriko die, eta, ondoren, norbaitek zerbait esan nahi badu horren inguruan, aukera izango du, hitza eskatu eta txanda errespetatuz, bere iritzia, aholkua, etab. adierazteko.
- Pentsamendu bat edo beste –denboraren arabera– arbelean idatz daitezke eta haren zuzenketa kolektiboa ere egin dezakezue, betiere, haurraren produkzioa errespetatuz, ondo egindakoa txalotuz eta hobetzeko asmoarekin. Ortografia eta puntuazio-arauak lantzeko une aproposa da honakoa.
- Idatzitakoa norberarentzako da, baina, nahi izanez gero, taldeari edo irakasleari adieraz dakiok eta egoki ikusten bada, zuzenketa egiteari ekin.
- Ikasturtea aurrera doan neurrian, ikasleek beren produkzioak berrikusi eta beren idazkerari buruzko balioespen txikiak egin ditzakete. Zertan hobetu dut nire idazkera eta nire egunerokoaren itxura? Zer hobetu beharko nuke oraindik ere?

Eguneroko horren funtzioa bikoitza da; batetik, idatzizko komunikazioan oinarritutako idazketa-prozesua garatzea, eta bestetik, irakasle eta ikaslearen arteko komunikazio eta harremana sendotzea.

Ikasleak egunero idaztean, hizkuntza idatzia landu eta garatuko du, pentsamendua hitz eta esaldi esanguratsu eta egituratu bidez adieraziz, letra ulergarri idatziz eta beharrezkoak diren puntuazio-arauak jarritz, hartzaileak (norberak, irakasleak) uler dezan. Beraz, idazketa komunikatibo eta funtzionalaren zentzua barneratuko du ikasleak apurka-apurka jardura honekin. Horrez gain, irakaslearekin nahiz taldean izan ditzakeen elkarrizketetan, hainbat hizkuntza-funtzio martxan jartzerakoan, ahozko hizkuntzaren zuzeneko garapena bideratuko da eta ikaslearentzako sentimendu hustuketa edo askatzeko bidea ere eman daiteke, agian, ahoz esatera ausartzen ez zen gauza bat errazago gertatzen zaiolako idatziaren bidez askatzea.

Horregatik, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren garapena lantzeaz gainera, ikaslearen alde emozionala eta afektiboa ere lantzeko aukera ematen digu ekintza horrek. Eta irakaslearen aldetik, ikasleak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko aukera ere ematen du.

Idazketaren zuzenketari dagokionez, zuzenketak ikasleen koadernoan egin beharrean, komenigarriagoa da ikasleei esatea euren idatziak irakaslearengana joan aurretik irakurtzeko eta egokiak diren zuzenketak egiteko, edo, bestela, irakurri ahala ulertarazi ikasleei, idatzia ulertzeko zailtasunak ditugula, agian, punturik ez duelako jarri, letra ez delako ulertzen... ikaslearen nahia irakasleak idatzitakoa ulertzea izango denez, berehala ekingo dio zuzenketak egiteari. Gogoratu egunerokoak dotorea izan behar duela eta gorritz zikinduta ez dela batere erakargarria geratzen.

Jarduera honen prozedura oso garrantzitsua da, errespetuz entzuten ikastea, entzundakoaren inguruko interesa adieraztea, hausnartzea, empatia lantzea... Irakaslearen lana prozedura hori guztia modu egokian bideratzea izango da.

Proposamen horren inguruan sakontzeko, irakurri honako artikulua hau: *“Pentsamenduen koadernoak”*: idazketa funtzional eta komunikatiborako proposamena. Mikel Prieto Gil de San Vicente. Ikastolen Elkarte. Irakurketa eta idazketa. VIII. Jardunaldi pedagogikoak. Gasteiz, 2001.

## **18. Gaiaren abestia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, abestiak, 1. pista*

Gaiaren abestia den "Bazter guztiei begira" entzungo dugu eta, taldean, unitatean agertzen den letra irakurriz, kantatzen saiatuko gara.

Orrialde honetan, CDari eta **Musikako lan-koadernoari** sarrera ematen dieten ikonoak ikusiko dituzue. Musikako lan-koadernoaren bidez, lengoia musikala eta txirula lan ditzakezue.

## **19. Ipuina: Teseo eta minotauroa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.*

*Konstantea: Ulermena*

Ulermena landu eta indartzeko asmoz, hiru unetan landuko dugu ipuina, irakurri aurretik, bitartean eta ondoren. Orrialde honetan, irakurri aurretik ulermena indartzeko, hainbat estrategia azaltzen zaizkigu.

Hasteko, Xabierrek esaten duena irakurri taldean eta ekar itzazue gogora ipuinari eta hari-matazaren erabilpenari buruz jaurti zenituzten hipotesiak. Ondoren, taldean irakur ezazue orrialde horretan agertzen den “Teseo eta Minotauroa” ipuinaren laburpen tentatzailea, hau da, hasiera eta arazoa aurkezten dituen. Gero, eskain iezaiezue ikasleei hausnartzeko eta irudikatzeke ipuinean gerta daitekeena eta, ondoren, idatz dezatela eurek iragarritakoa. Behin idatzita dutenean, kodearen autozuzenketa egitera bultzatu. Bukatzean, talde handian irakurriko dituzte euren iragarpenak.

## **20. Ipuina: Teseo eta minotauroa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 6. orrialdetik 9.era*

*Konstantea: Ulermena*

Gaiaren ipuina taldean irakurriko dugu, ikaskuntza elkarkaria praktikan jarritz.

Ikaskuntza mota honen xedea zera da: ulermenaren eraikuntza, baina irakurketari jolas-itxura ematen dionez, bide batez, haurren irakurketarekiko motibazioa erraztu eta pizten du.

Irakurketa mota horrek bi helburu nagusi ditu; testuaren ulermena eta irakurketa-estrategiak era esplizituan eta kontestu naturalean lantzea. Beraz, ulermenaren bidez ezagutza bereganatzeaz gainera, ikasleak irakurketaren estrategien funtzioaz ere jabetu ahal izango dira. Jarduera hau gauzatzeko modurik egokiena, talde txikietan esperimintatzea da, hala ere, lehenengo aldia denez, talde handian egitea proposatzen dizuegu.

Testuaren arabera, ulermena ziurtatzeko erabiltzen diren estrategiak ere ezberdinak izaten dira, estrategiak modu esplizituan lantzeko rol bati egotziko dizkiogu; honako hauek dira, edozein dela ere aurrean dugun testua, martxan jarriko ditugun rolak: irakurlearen rola, ikertzailearena, galdetzailearena, kazetariarena, asmatzailearena eta jakintsuarena.

- “Irakurlea” (dekodifikazioa): Taldekide bakoitzak bere liburuan irakurketari jarraitzeko aukera izango badu ere, irakurle ofizial honek egingo du ozeneko irakurketa. (Txandatu daitezke).
- “Ikertzailea” (argibideak): Ulertzen ez duen hitzen bat entzuten duen bakoitzean, irakurketa eten egingo du eta, testuingurua kontuan izanik, hitz horrek zer esan nahi duen argitzen saiatuko da. Erantzuna asmatzeko gai ez bada, beste taldekide bat saia daiteke. Denen artean hitzen bat argitzeko gai ez badira, ikertzaileak bakarrik edo irakaslearen laguntzaz, hiztegian bilatutako definizioa taldekideei irakurriko die.

- “Galdetzailea”: Falta diren eta testua ulertzeko behar diren datuei buruz galdetuko du.
- “Kazetaria” (laburpena edo sintesia): Irakurketa bukatzean, irakurritakoaren laburpena egin beharko du.
- “Asmatzailea”: Testuaren hariari jarraituz, nola bukatuko den asmatu edo iragarri beharko du bukaerara heldu aurretik.
- “Jakintsua”: Irakurritakoa garrantzitsua den beste informazio batekin erlazionatuko du, testua errazago ulertzeko asmoz.

Beraz, talde handian, azaldu egingo diegu ikasleei irakaskuntza elkarkaria lantzeko irakurketa modu berri bat frogatuko dugula. Utz iezaiezue argi zein den honen helburua.

Ondoren, aurkez itzazue rolak eta azal iezaiezue bakoitzaren funtzioa zein den. Jarraian, ekin irakurketari. Irakurleak ozenki irakurtzen duen bitartean, gainerako ikasleek isileko irakurketa egingo dute, euren irakurgaietako testuari jarraituz. Norbaitek hitz ezezagun bat entzutean, irakurketa eten egingo du, eta galdetzaile lana egingo du. Denen artean, hitz horren esanahia argitzen saiatuko gara. Bi rol horiek eta baita kazetariarena ere erraz ulertu eta praktikan jartzeko gai izango dira, bestek betetzea, agian, zailago gertatuko zaie; horregatik, irakasleak berak eman beharko die eredia, irakurritakoa beste informazio batekin lotuz, testuan falta den eta garrantzitsua den informazioa erantsiz, etab.

Esperientzia praktikan jarri eta burutu ondoren, talde handian, horri buruz hitz egingo dugu: gustukoa izan duten, zer zailtasun izan dituzten, rolak argi gelditu diren, paperen bat ondo ez betetzeak zer suposa dezakeen, zein den rolik zailena eta zergatik... Elkarrizketa horrek, irakurketari dagokionez, irakasleoi pista asko eman diezaguke, ikasle bakoitzak dituen zailtasunak agerian geldituko baitira.

Bukatzean, ikasleei ipuina bakarka irakurtzeko aukera emango diegu.

## **21. Ipuina: Teseo eta minotauroa. Irakurri ondoren**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.*

*Konstantea: Ulermena*

Hasteko, tarte bat emango diegu ikasleei orrialde horretan agertzen diren galderak irakur ditzaten. Ondoren, norbaitek zerbait ulertu ez badu, argitzeko tarte irekiko dugu; gogoratu ez duela zertan irakasleak izan behar hor galdetzen dena azaldu behar duena, ikasleren batek argi diezaioke besteari bere zalantza. Behin argitutakoan, ikasleek ipuinean oinarritutako iritzi-mailako galderei erantzuteari ekingo diote; erantzuna idazteaz gainera justifikazioa ere eskatu ikasleei, zer eta zergatik. Bukatzerakoan, elkarrizketa-unea ireki eta eztabaida sortuko dugu, idatzitakoan oinarrituz, erantzunak kontrajarriz, justifikatuz, besteenak onartuz nahiz eta ez partekatu, etab., eta baita ipuina irakurri aurretik egindako hipotesiekin konparatu ere eta horiek baieztatu edo ezeztatu.

## 22. Artelana

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.*

Hirugarren mailara heldu diren haur hauek (Urtxintxa eta Txanela proiektuetan ibili badira, behintzat), urteak daramatzate artelanei behatzen, artisten biografiak entzuten, etab. Dagoeneko hurrek gure inguru kulturalaren “imajinario kolektiboaren” hainbat artelan eta artista (euskaldunak eta kanpokoak) ezagutzen dituzte, eta bide horretan jarraituko dugu bigarren ziklo honetan ere. (Tarte bat hartzen baduzue, aurreko urteetan ikusi dituzten lanen berri jaso ezazue, eta beste mailetakoa irakasleei, plastifikatu badituzte eta eskura badituzte, eskatu, aurre-ezagutzen inguruko elkarrizketa garatzeko lagungarriak izan baitaitezke).

- *Aizue. Zer da orrialde honetan datorkiguna? Ezagutzen al duzue beste artelanik?*

- *Non ikusi dituzue? Zein? Zuek egin al duzue inoiz era horretako lanik?*

- *Ezagutzen al duzue hau (erakutsi batzuk)?*

- ...

Materialetan azaltzen diren lanez gainera, inguruan (kultur etxe nahiz erakusketa areto, liburu, aldizkari...) ditugun lanak ere bildu eta plastifikatuz, gure artearen txokoan (nahikoa da liburutegiko apal batean kutxa bat jartzea artelanen bilduma eta artisten biografiak eta erreferentziak jasotzeko) kokatuko ditugu. Posterrak, etab. hormetan ere jar ditzakegu, betiere, lehenik, hurrekin horien inguruan hitz egin ondoren.

Aurrerago proposatzen den bezala, irteerak eginez (herriko/hiriko eskultura eta erakusketak ikusiz...), liburuetan behatuz, jendea elkarrizketatuz... beti eskainiko diogu gure arreta kulturaren adierazle diren lan horiei ere.

*Jean Dubuffet Neguko lorategia. 1970 eta Calaiseko pasagunearen paisaia.*

1963

Orrialde honetan, artista beraren bi lan aurkitzen ditugu. Biak lerroen inguruan garatuak, bata bolumenean, planoan bestea. Irakurri liburuan jartzen duena eta, nahi baduzue, eman aukera hurrei paper batean margoa altxa gabe lerroak eta labirintuak (nahasmena) marrazteko.

Bigarren lanaren bidez, liburuan jartzen duen legez, artistak hiriaren planoan iradokitzen digu, hiriak sortzen dizkion sentipenak aditzera emanez: hiriaren mugimendua, koloreak, hotsak...

- *Zer esan nahi ote du horrek?*

- *Artearen bidez, sentipenak aditzera ematen al dira?*

- *Nola?*

Artistaren biografia entziklopedia batean bila ezazue. Hona, laguntza moduan, Harluxet hiztegi entziklopedikoan aurkitutakoa. Hainbat kontzeptu oso zailak direnez, frantsesa zela, non jaio eta non hil zen (mapan behatu), zein mendetakoa zen (oso aspaldikoa, edo ea zer dioten hurrek) ikusi eta fitxa batean edota artelanaren atzean idatzi biografia, eta jaso gure txokoan.

- *Pintore eta eskultore gehiago ezagutzen al dituzue?*

- *Eta frantsesak?*

- ...

### **Dubuffet, Jean**

*Pintore, eskultore eta idazle frantsesa (Le Havre, 1901 - Paris, 1985). Art brut estiloaren teorialaria, berezkotasun gordinenaren miresle izan zen. Gaixo psikikoen, eskolatu gabekoen edo gizarteak baztertutakoen obretatik abiatuak lan egin zuen, graffitia eta collagearen teknikak aplikatuz (Metro, 1943; Erretratuak, 1947; L'hourloupe zikloa, 1962-74).*

Oharra: Artelanak ikusi ondoren proposatzen diren plastikako jarduerak ez dira jarraian egitekoak.

## **23. Gu ere labirintuak eraikitzen. Bolumena**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

Artelan hauetan oinarriturik, hainbat lan plastiko gara ditzakezue. Lehenari behatzen badiogu, labirintu antzeko bat eraiki du artistak. Lerro kurboak ertzetan beltzez erresaltatu eta espazio bitxiak sortu ditu. Hozkailuak eta beste elektrotresnak etortzen diren kaxetan “poliespanoa” aurki dezakezue, eta horixe erabil dezakezue erosi beharrean. Horretarako, zuen inguruko denda batean eska dezakezue, denboraz, gorde diezazueten. Bestela, erosi edota beste material batez ordezkatu dezakezue, kartoizko kaxa handiak (txikiagoak, talde txikietan edo bakarka egiten baduzue) erabiliz, adibidez.

Artelana imitatuz, talde handian (neurri handiko xaflak erabiliz) edota talde txikietan (neurri txiagoko xaflak erabiliz), zuri-beltzean eraiki ditzakezue zuen labirintuak.

Proposamen honen beste aldagaia xaflak koloreetan margotuz (barrua eta ertzak) egitea litzateke. Adierazi haurrei espazio desberdinak sortu behar dituztela, jolas daitezela xaflak modu desberdinetan kokatzen, frogak egin ditzatela eta, azkenean, erabaki dezatela nola duten gustukoena.

## **24. Gu ere labirintuak eraikitzen. Planoa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Labirintuak, lerro zuzenen bidez*

Labirintuak bolumenean eraiki ez ezik, planoan ere marraz ditzakegu erregela eta arkatza erabiliz, ondoren, errotulagailuz pasa eta, bukatzeko, nahi dugun moduan apaintzeko. Era horretan, labirintua goitik ikusiko dugu. Bere paretak marrak izango dira, eta marra artean geratzen den espazioa izango da bidea. Lan horrek abstrakzio puntu bat eskatzen dio haurrari, eta marrak bota aurretik hausnartu eta kontrolatu egin behar du, baldin eta labirintu horrek bidea izan behar badu. Arkatza eta erregela txukun erabiltzen saiatzeaz gainera, espazioaren azterketa interesgarria bideratuko dute lan hori garatuz. Horretarako, bakarka egin badaiteke ere, interesgarria da bi lagun artean hitz egitea, negoziatzea eta ados jartzea. Eman haur bakoitzari/bikote bakoitzari A3 neurriko edo A4 neurriko papera eta, hasi aurretik, zikinean eta erregularik gabe, hainbat proiektu edo zirriborro egin ondoren, has daitezela lanean.

*Labirintuak, lerro kurbatuen bidez*

Aurreko jardueran bezala jokatu dugu oraingoan ere, baina erregularik gabe eta ahalik eta lerro zuzen gutxien erabiliz.

## 25. Irudimenezko planoak

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde txikian*

Bigarren artelanean, artistak hiriaren planoak iradokitzen omen digu, hiriak sortzen dizkion sentipenak aditzera emanez: hiriaren mugimendua, koloreak, hotsak...

Geuk ere, hainbat material eta teknika jakin bat erabiliz... gure sentipenak adieraziko ditugu.

Taldekatzearen arabera, eman neurri egokiko kartulinak hurrei. Argizariak erabiliz, kartulina osoa kolore desberdinekin margotuz estaliko dute. Ondoren, argizari beltzez estaliko dute guztia eta puntadun tresnak erabiliz (puntoiak, txotxak, tintarik gabeko boligrafoak...) eta nahi duten formako marrazkiak eta marrazkiak harraskatu edo karraskatuz, osatuko dute beren lana.

Bakoitzak nahi duena islatuko du: figuratiboa dena edo ez dena, herriarekin zerikusia duena edo ez duena.

## 26. Herriaren kokalekua

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.*

Atal hau hasi aurretik komenigarria da ikasnorabideari begiratzea. Gero, ikasleei tartea emango diegu orrialde horretan dagoena bakarka irakurtzeko eta, ondoren, taldean hitz egin dezatela jartzen duenari buruz. Esan iezaiezue gogora ekartzeko bigarren mailan landu zuten unibertsoari buruzko gaia, Maddalen eta Ferminen espaziotik Euskal Herrira egindako bidaiak. Aukera baduzue, ekar itzazue gelara munduko mapa, Europakoa eta Euskal Herrikoa eta aprobetxatu aukera horiek behatzeko.

Bukatzeko, gelan dugun E.H.ko eskualdeen mapa interpretatuko dugu, azalpen-testuko informazioaren arabera. Probintzia bakoitzaren hiriburua zein den jabetzeaz gain, azpimarratu edo biribildu egingo ditugu. Mapa fisikoa eskuratzeko aukera baduzue, aprobetxatu Pirinio mendikatea ikusteko.

Mapei behatzen ari garela aprobetxatuz, puntu kardinalen gaia (4. mailan landuko dute sakonago) aterako dugu, ea zer dakiten, izenez gain euren kokapena zein den ezagutzen duten, etab.

## 27. Abestia: “Zazpi Euskal Herriek”

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, abestiak, 2. pista/Irakurgaiak 3, 10. or.*

Grazian Adema “Zaldubi”ren “Zazpi Euskal Herriek” abesti tradizionala entzungo dugu talde handian, betiko pausoei jarraituz:

- Entzun eta musikaz eta erritmoaz gozatu.
- Entzun eta letra irakurritik mezuzaz edo gaiak jabetu, gero, horren inguruko elkarrizketa bultzatzeko:

- Ideia nagusia zein den eztabaidatu denon artean.
- Letra aztertuz unitateko 16. orrialdean agertzen den mapa eta azalpen-testuan irakurritakoa erkatu eta berdintasunak eta ezberdintasunak ahoz nabarmendu:
  - Probintzien izenak berdinak al dira? Zergatik izango da hori? Noizkoa ote da abesti hau? Tradiziozko abestia dela adierazi, argitu hitz horrek zer esan nahi duen, azpimarratu horren garrantzia, kulturean, hizkuntzan, hau da, ondarearen ideia.
  - Inferitu: Nongoa izango da Zaldubi? Abestiko zein esaldi izan da erabakiorra hori jakiteko?
- Abesteko aukera dugun guztietan, letra aurrean dugula abesteari ekingo diogu.

## 28. Herriaren kokalekua

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or./Material osagarria*

Ikasleak jarduera hauek bakarka burutu beharko ditu, baina zalantzaren bat badu, taldekideei argibideak eska diezazkieke lasai asko. Eman ikasleari material osagarrian dagoen mapa mutua (fotokopiak atera ditzakezue saiakera gehiago egiteko asmoa baduzue), bertan koka dezaten eskatzen zaiena.

Azalpen-testutxoari dagokionez, ez du zertan oso luzea izan beharrik, kantitatea baino gehiago kalitatea hobetsiko dugu; hona hemen adibide batzuk ikasleei emateko:

- *“Ni bizi naizen hiriaren izena Iruñea da. Iruñea Nafarroako hiriburua da”.*
- *“Gure herriaren izena Larrabetzu da. Larrabetzu Bizkaian dago kokatua, Bilbotik oso gertu. Oso herri txikia da eta mendiz inguraturik dago”.*
- *“Arrasate da gure herriaren izena. Arrasate E.H.an dago, Gipuzkoako probintzian. Herri handia da eta biztanle asko ditu”.*
- *“Gure herria Marauri da. Marauri Araban dago kokatua eta oso-oso herri txikitxo eta lasaia da. Guztira 45 biztanle gara eta denok ezagutzen dugu elkar”.*

Proiektuaren ikurrak adierazten duen bezala, azalpen-testua eta mapa bera ere erabil ditzakezue proiekturako, komenigarria da din-A-3 neurriko mapan adieraztea E.H.ko probintzia, hiriburu eta ikastola aurkitzen den herri edo hiria ere bertan kokatzea, koloreztatzea eta, plastifikatu ondoren, gelako horman jartzea, denen begi bistan.

Hausnarketa soziolinguistikoa bideratzeko, elkarrizketa sortuko dugu:

- *Nor da hor agertzen den pertsonaia? Argitxo. Zer dakizue berari buruz? Eskura ezazue Argitxori buruzko informazioa.*

## 29. Herriaren egitura: Planoa

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. eta 19. or.*

Gogoratu atal berria hastera goazela, eta egokia litzatekeela ikasnorabidera joan-etorria egitea.



Kleok esandakoa aprobetxatuz, herriari buruzko aurre-ezagutzak ipiniko ditugu martxan, bigarren mailan egin zuten herriaren proiektua gogora ekarriz. Ondoren, binaka jarrita, 18. eta 19. orrialdeetan dauden lehen jarduerak burutu eta azalpenak ulertu beharko dituzte. Jarraian, talde handian, ideia nagusiaren kontzeptua argituko dugu.

Argitxoren irudia berriro ere agertzen denez, oraingoan hausnarketa norberaren herrian edo hirian kaleko kartelak zein hizkuntzatan idatzita dauden izango dugu hizpide. Nola dauden idatzita, nola egon beharko luketen..., betiere, bakoitzaren iritzia justifikatuz.

### **30. Argitxo**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, abestiak, 3. pista/Irakurgaiak 3, 11. or.*

Argitxo pertsonaia ezagutu dugularik, bere abestia ikasten saiatuko gara; horretarako, hasi aurretik, betiko urratsak emango ditugu:

- Abestia entzun eta musikaz eta erritmoaz gozatu.
- Irakurgaietan agertzen den letra irakurri, ulertu eta taldean gaiaren inguruan hitz egin.
- Letra aurrean dugula abestu.

### **31. Sailkapena eta azalpen-testutxo**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or.*

Ikasleek, bakarka, aurreko orriko planoan aurkitutako elementuak ideia nagusiaren arabera sailkatuko dituzte. Gero, euren hitzekin, planoari buruzko azalpentxo bat idatzi beharko dute. Jarduera hau saiakera bat besterik ez da, helburua ez da planoaren definizio "ona" egitea, ikaslea planoaren eta bere erabilpenaren inguruan pentsatzen jartzea eta pentsatzen duten hura idatziz adieraztea baizik.

### **32. Ipuina: "Kalerik kale bagoaz"**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 12. eta 13. or.*

*Konstantea: Ulermena*

Ikasleek bakarka irakurriko dute irakurgaietako ipuina. Ondoren, talde-elkarrizketa bultzatuko dugu, ulermena lantzeko:

- *Noizbait aurkitu al zarete horrelako egoera baten aurrean? Adibideak jar ditzatela. Eta jakin al zenuten orientabide egokiak ematen?...*

Hausnarketa soziolinguistikoa: Bizkaiera.

- *Ipuinean agertzen den emakumea euskalduna da, baina zein probintziatakoa? Eta nola hitz egiten du? Esaldi bakarra agertzen da bere hizkeran, zein da? Nola esango genuke esaldi hori euskara batuan? Zein hitz izan da aldatu dena? Ba al dakizue bizkaieraz hitz egiten? Hitzen bat? Eta nafarreraz?... Saia gaitezen hitz horiek euskara batuan ere adierazten eta esaldiak ahoz osatzen, hitz horien erabilpenean trebatzeko. Adibidez: jagon-zaindu, Arrasti on!-Arratsalde on!, paratu-jarri, dot-dut, diñot-diot, gura-nahi, oratu-heldu...*

### **33. Gure herriko/hiriko planoa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or.*

Herriko planoa eskuratu ondoren, talde handian interpretatuko dugu, elementu adierazgarrienak identifikatuz. Horren ostean, ikasleek, talde txikietan, lehenengo jarduera burutzeari ekingo diote eta, bukatzean, ahoz, auzoa definitzen saiatuko dira. Ondoren, bakoitzak auzoaren definizioa idatziko du.

Jarraian, planoaren erabilpenean trebatzeko, binaka, ibilbideak aukeratuz eta horren inguruko orientabideak emanez, jolasteari ekingo diote ikasleek. Jolasa egin aurretik, komenigarria da irakasleak argibide batzuk ematea, ezagunak diren eta ohituraz horrelako azalpenak emateko erabiltzen diren esaldien inguruan:

- *Segi aurrera... Segi zuzen... Dena zuzen...*
- *Lehenengo bidegurutzean har ezazu ezkerreko kalea...*
- *Kale kantoira heltzerakoan, ikusiko duzu...*
- *Horren aurrean, atzean, ezkerrean, eskuinean, alboz albo, ondoan, parean...*

Gogoratu, proiektuko ikurrak adierazi bezala, planoa proiekturako erabili beharko duzuela; beraz, fotokopiatu, handitu eta plastifikatzea ere egokia da.

### **34. Auzoak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.*

Atal berria hastera goazenez, ikasnorabidera joan-etorria egingo dugu.

Ondoren, ikasleek, bakarka, orrialde horretan jartzen duena irakurri, ulertu eta osatu beharko dute. Bukatzean, talde handian, auzoaren definizioa aztertuko dugu eta ikasleek lehenago idatzi zutenarekin alderatu, berdintasunak eta ezberdintasunak nabarmenduz. Modu horretan, definizioetan zehaztasunak duen garrantziaz jabetuko dira ikasleak, eta errazago ulertuko dute definizioaren izaera.

### **35. Hitz-berrilandia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.*

“Auzoa” hitzaren definizioa aprobetxatuz, ikasturte osoan zehar burutu beharreko proiektutxoa martxan jarriko dugu: Hitz-berrilandia.

Aurten ezezaguna den edozein hitz agertzen zaigunean, hiztegian haren definizioa bilatu eta ulertu ondoren, ikasleek euren hitzekin definitu, haren txartela osatu eta kutxa horretan jarriko dute. Talde handian egin beharreko proiektua denez, hori burutzeko prozedura eta ardura-banaketa denon artean erabaki beharko duzue.

Horrekin batera, haur bakoitzak bere hiztegia ere osa dezake, horretarako prestatuta egoten diren koaderno batean.

Kutxa paper polit batekin forratu, HITZ-BERRILANDIA bertan idatzi, kolore ezberdineko kartulinak erabiliz, fitxa-banatzailak egin, horietako bakoitzak goiko

aldean, telefonoen agendak izaten duten bezala, alfabetoko hizki bat dutela, eta hitzen fitxak osatu ahala bertan txertatuko ditugu.

Ikasturtea aurrera joan ahala eta kaxa hitzekin betetzen doan heinean, jolas bat ere egin dezakegu.

Ikasleen irudimena piztu nahian, talde txikietan jarrita, talde bakoitzak asma dezala jolas bat Hitz-berrilandiako txartelak erabiliz. Mota ezberdineko adierazpena lantzeko, asmakizun antzeko jolas bat asma dezakete, batek hitza marraztu eta besteak asmatu, hitz horrekin zerikusia daukaten beste bi hitz esan, edo hitz horrekin esaldi bat osatu, edo esaldi bat osatu eta irakurri, baina hitz hori agertzen denean mimikaz adierazi, edo galdeketa-jolasa (nola deitzen zaio ...-ri?).

### **36. Alfabetoaren abestia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, abestiak, 4. pista*

Hiztegiaren erabilpenerako alfabetoaren ezagutza ezinbestekoa denez, ikasleek ezaguna duten abestia kantatzeari ekingo diogu, Josu Txapartegiren “Euskal abezea”.

Nahi izanez gero, jolasen bat asmatzeko aukera ere baduzue (haurrak biribilean jarri eta musikarekin batera bakoitzari tokatzen zaion letra abestu, adibidez).

### **37. Alfabetoaren arabera hitzak ordenatzen**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 5. or.*

Ikasleek, bakarka, lan-koadernoan agertzen zaizkien jarduerak burutuko dituzte. Gero, berrikusketara egitera bultzatuko ditugu eta, nahi izanez gero, ikasleek koadernoak elkarren artean truka ditzakete eta batzuk besteari adierazi ariketa zuzen dagoen edo zer zuzenketa egin beharko lukeen. Modu horretan, zuzenketarako arreta eta norberaren lanen zuzentasunarekiko jarrera baikorra garatuko dute.

### **38. DVDA: Auzoak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: DVDA, 1. pista*

DVDA ikusten hasi aurretik, komenigarria da ikasleek jakitea zer ikusiko duten DVDan eta zer jarduera mota egin beharko duten ondoren, edozein dela ere informazioa bereganatzeko erabiliko den iturria, helburuaren arabera arreta gauza batean edo bestean jartzen delako, eta hori da, hain zuzen, ikasi behar dutena, komeni zaien informazioa hautatzen.

Horregatik, DVDA ikusi aurretik, utz iezaiezue tarte bat, bakarka, liburuko 24. eta 25. orrialdeak irakurri eta ulertzeko.

Ondoren, ikus ezazue DVDA.

### **39. Auzo motak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 24. eta 25. or.*

Hitzaren eta irudien bidez DVDan jasotako informazioaren arabera, auzo bakoitzari dagokion ezaugarria azaltzen duen esaldia edo esaldiak idatzi beharko dituzte ikasleek fitxetan. Adieraz iezaiezue, aukeratu beharreko esaldiak hamar badira ere, horrek ez duela esan nahi derrigorrean bina esaldi dagozkienik fitxei, auzo mota bik ezaugarri bera parteka baitezakete. Ariketa honen helburua, auzo bakoitzak izan ditzakeen ezaugarriez jabetzeaz gain, auzo ezberdinek ezaugarri bera parteka dezaketela ere konturatzea da, azken batean, orain urte batzuk errazago bereizten ziren auzo mota desberdinak, gaur egun antzeko ezaugarriak partekatzen dituzte askotan, eta horrek bereizketa edo sailkapena zaildu egiten du.

Taldean eztabaida bultzatuko dugu, eta ikasle bakoitzak ariketa burutzean egin dituen aukeraketak justifikatuko edo argudiatuko ditu.

### **40. Sailkapenak: ideia nagusiaren arabera**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoa, 6. or.*

Ikasleek bakarka burutuko dituzte lan-koadernoko jarduera hauek, ideia nagusiaren arabera sailkapenak egiten treba daitezten.

### **41. CD-ROMa (Ideia nagusia)**

*Lan egiteko era: Binaka/Bakarka*

*Materiala: CD-ROMa*

Ikasleren batek sailkapenak egiteko erraztasun falta balu eta irakaslearen ustez beharrezkoa balu ariketa mota hauen lanketa sistematikoa, jakin ezazue, hainbat direla CD-ROMean elementuak sailkatzeko dituzuen jarduerak, euren artean ideia nagusiaren irizpidearen arabera sailkatuta. Horrelako beharrian berezirik ez duten ikasleek ere trebatzeko aukera dute, jolasak markatzen dituen urratsei jarraitzen badiete.

### **42. Irteera (helburua zehaztu-prozedura adostu) eta bide heziketa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 26. eta 27. or.*

Talde handian, Mainerrek esandakoari erreparatuko diogu eta iragartzeari ekingo diogu, *Zer esan nahi izango du “Txoko kuttuna” esatean? Zein izango da “Txoko” hori? Nolakoa izango ote da?...*

Mainerren gelakoek herria aztertu zutenean hartutako oharra argituko ditugu, hau da, irteeraren helburua zehaztu, horretan oinarrituz, eta jardueran bertan azaltzen zaizkigun galderak taldean eztabaidatuko ditugu eta, erabakiak hartu ondoren, ikasle bakoitzak hartutako erabakiak idatziko ditu.

Ondoren, Xarpak esandakoari erreparatuko diogu eta, taldean, horri buruz hitz egin. Kanean ibiltzeko arauen artean bide hezkuntzari dagokion guztia aurkitzen baita.

- Zergatik aipatzen ote ditu Xarpak bere lagunak?
- Gure lagunen edo ezagunen bati gertatu al zaio istripurik? Nolakoa? Zergatik gertatu zitzaion?...
- Zer egin daiteke horrelakorik ez gertatzeko?

Gaia garrantzizkoa da eta, askotan, bide desberdinak erabiliz (udaletxeen programak, Txanela eta Urtxintxa proiektuak...) landu bada ere, ez dago inoiz sobera tratatzea. Ohituraz, irteerak egin behar ditugun bakoitzean egokia izan daiteke gai honi aipamena egitea. Irteera burutu ondoren ere, oso garrantzizkoa da alderdi honekiko jarrerak ebaluatzea talde handian eta jokabide egokiak txalotzea eta desegokiak konpontzeko konpromezua denon artean hartzea.

Azpirarra ezazue, beraz, arau bakoitzaren garrantzia, arau horren zergatia eta baita ez betetzeak sor ditzakeen kalteak ere.

Bukatzeko, ikasleek, taldean, hitz egindako kale arauak idatziko dituzte euren liburuan.

### **43. DVDA (Txoko kuttuna)**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: DVDA, 2. pista*

DVDA ikusi aurretik ekintza honen xedea argituko diegu ikasleei. Hau da, zer ikusiko dugun eta zertarako. DVD zati horretan, hainbat pertsona agertuko dira bere “Txoko Kuttunean” edota bere txoko Kuttuna deskribatzen, euren aukeraketaren arrazoia ahoz adierazten. Helburua ikasleek txoko kuttunak izaera ezberdinekoak eta arrazoi ezberdinengatik aukeratuak izan daitezkeela ulertzea da, irteera egiten dutenean, dagoeneko txoko kuttunik ez badute, behintzat, eurena aurkitu beharko baitute, eta aurrerago, haren deskribapena eta irudia egin.

DVDA ikusi ondoren, deskribapenetan entzundakoa eta ikusitakoa marrazten saia daitezke haurrak.

### **44. Irtenaldia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Irteera egiteko ordua iritsi denez, ez legoke gaizki alde aurretik gogora ekartzea irteeraren helburua, hau da, nora joango diren, zertara, zer informazio mota bildu beharko duten, kaleetan zehar nola ibili beharko duten, zer material eraman behar duten, zer ardura duen ikasle bakoitzak...

Horrez gain, hurrengo atalean zer egin beharko duten ikustea ere egokia izan daiteke; beraz, ikasnorabidera joateaz gainera, begiratu bat eman beharko zeniekete ondoren bete beharko dituzten jardueri ere.

### **45. Zerbitzuak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. eta 29. or.*

Gogoratu ikasnorabidera joan-etorria egitea komeni dela.

Auzo bakarra nahiz auzo bat baino gehiago aztertu badituzue ere, taldean beha iezaiozue Mainerren gelakoek egindako auzoen arabeko sailkapenari eta, hura eredutzat hartua, taldean, egin ezazue zuek hartutako datuekin antzeko panel bat, gero, proiekturako baliagarria izango zaizuen. Ondoren, panel hori erreferentzia moduan izanik, bakarka, sailka ditzatela herriko zerbitzuak, bakoitzari dagozkion ideia nagusien arabera. Taldean sailkapena berrikusi ondoren, panel batean idatzi, hori ere proiekturako baliagarria izango baita.

#### 46. Ingelesa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua 30. or.*

Beti bezala, ikasleei galdetu zertan ari diren lanean, eta egin dituzten lanak edo eta txokoetan duten materiala erakusteko eskatu.

You've been working on different neighbourhoods and the different services you find in a neighbourhood. Can you tell me what you know? (Different neighbourhoods like: Industrial, rural, residential, housing estate... Services in the neighbourhood like: health centres, sport centres, parks and playgrounds, shops, transport, cultural centres...).

Ondoren, liburuxka hartu eta dagokion orrialdeari behatu, (30. or.).

*Let's imagine you have to speak English in the neighbourhood (sometimes foreigners come to your neighbourhood or you might go to an English speaking place). Let's see what conversations you might hear. Look at page 30. Let's look at the first picture: where are they? At the playground, in the park... And picture number 2, where are they? At the dentist. And number three? In the sports centre. And number four? In the shop. And number five? In the library. And number six? At the bus stop.*

Hitzak aterarazten dituzun neurrian arbelean idatziz joan. Hitz guztiak arbelean idatzita daudenean, bakoitzak hitza dagokion irudiaren ondoan idatz dezala eskatu.

Esaiezu elkarrizketa batzuk entzungo dituztela eta dagokion irudiaren ondoan zenbakia idatzi beharko dutela.

Now, you're going to listen to some short conversations/dialogs. I want you to listen and write the number next to the correct picture.

For example:

“Quick, quick, the bus is coming!” Which picture is that? Yes, at the bus stop. So you write the number there. Ready?

Number one:

- When do I have to return this book?
- You can keep it for two weeks.

Number two:

- **Open your mouth wide, please.**
- **Will it hurt?**
- **No, don't worry. Just relax.**

**Number three:**

- Our team is playing fantastically!
- Yes, today we're going to win at last!

Number four:

- **Good morning, lovely day isn't it?**
- **Yes, it's a great day for walking the dog.**

**Number five:**

- Excuse me, does the number 5 bus stop here?
- Yes, it comes every ten minutes.

Number six:

- Excuse me, how much are these tomatoes?
- Oh, only 75 cents. They're very cheap and very good!

Elkarrizketa guztiak egin eta zenbakiak idatz ditzatela bakarka. Jarduera burutu ahala, gelan zehar mugitu eta arazorik ote duten kontrolatu. Elkarrizketa guztiak egin ondoren, talde osoarekin berrikusi .

*Where did you put number 1? Yes, number one was at the library. Can you remember the conversation?*

Egoera bakoitza berrikusi elkarrizketak gogoraraziz.

Bukatzeko (astirik balego), binaka, irudi bat aukeratu eta beste elkarrizketa bat asma dezatela. Inguruan ibili ikasleak animatuz eta bikoteei behar adinako laguntza eskainiz. Boluntarioak eskatu taldearen aurrean elkarrizketak antzezteko.

#### **47. Aisialdia: Kirola eta kultura**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 31. or.*

Ikasturtearen hasieran, herri eta hiri askotako udalek aisialdirako kirol eta kultura ekintza anitz eskaintzen dituzte. Aukera izanez gero, udaletxera, kultur etxera, polikiroldegira (hiri eta herri bakoitzak bere antolakuntza du) irteera antolatzea proposatzen dizuegu, ekintza horiei buruzko informazio idatzia nahiz ahozkoa eskuratzeko. Komenigarria da udaleko norbaitekin hitzordua alde aurretik adostea. Hitz ordua izanez gero, talde handian, presta ezazue aukerako galdeketa zerrenda bat. Jasotako informazioarekin ikasleek liburuan azaltzen zaizkien fitxak bete beharko dituzte. Ondoren, eskaintzen artean gure proiektuaren hartzaile izango direnen adina gogoan izanik, aukeraketa bat egingo dugu, eta haienezako egokiak diren eskaintzen fitxa handi batzuk egingo ditugu eta paneletan jarri.

Ikasleentzat aukera ederra da jakitea herriak euren adinekoentzat zer kirol eta kultur eskaintza egiten duen, eta ez litzaieke gaizki etorriko gustuko duten baten batean apuntatzea ere.

#### **48. Kultur etxeko erakusketak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Hainbat kultur etxetan, edo beste areto batzuetan, artearekin zerikusia duten erakusketak izaten ditugu. Herriko kultur zerbitzuak aztertzen ari garelarik, ikas

dezagun bertara hurbiltzeko bidea, eta ikasturtean zehar egin ditzagun hainbat bisitaldi. Batzuetan, ikusi eta ikusitakoari buruz hitz egin besterik ez dugu egingo, agian, baina beste zenbaitetan, gure “produkzio” artistikorako ideiak jaso ditzakegu. Jaso bertan egoten diren liburuxka eta posterrak, eta eraman gelara. Horrez gainera, erakusketa egin duen artistarekin edo erakundeak jartzen duen arduradunarekin hitz egiteko aukera baldin badugu, hobe.

#### **49. Jolaserako abestia: Gure herriko alkatea**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: CDa, abestiak, 5. pista*

Beti bezala, “Gure herriko alkatea” abestia entzun eta musikaz eta erritmoaz gozatuko dugu. Gero, letra arbelean kopiatuko dugu eta letrarekin batera abesten saiatuko gara. Abestia buruz errazago ikasteko, abestu ahala dramatizatu ere egingo dugu. Horrelako abestiak, errepikapenean oinarritzen direnak, eskuekin jolasteko aproposak izaten dira; beraz, binaka jarrita, eman ikasleei aukera eskuekin jolas bat asmatzeko eta gelakideei erakusteko.

#### **50. Bueltako komikia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.*

Hasteko, taldean izenburuaren inguruko elkarrizketa sortuko dugu:

- *Literaturzaleen Kluba? Zer adierazi nahi du? Zer da zuen ustez literatura? Zer esan nahi du Kluba hitzak?...*

Ondoren, tarte bat emango diegu ikasleei komikia bakarka irakur dezaten.

Horren ostean, berriro ere elkarrizketa bultzatuko dugu eta Tough-en hizkuntza-funtzio batzuk ipiniko ditugu martxan:

- *Lehenik eta behin, xehetasunetara joko dugu: Zein lekutan izan da Literatur tailerra?*
- *Irudikatzen: Zer motatako ipuina ari dela kontatzen uste duzue Martin? Nola dakizue?*
- *Irudikatzen eta arrazoitzen: Imajina ezazue horrelako tailer bateko partaide zaretela, gustura egongo zinatekete? Zergatik? Zer ekintza egingo zenituzkete?...*
- *Proiektzioa: Mei Li korrika joan denez, jauzi egin da. Nola sentituko zela uste duzue memento horretan? Zuei gertatu al zaizue inoiz horrelako zerbait? Noiz? Eta nola sentitu zineten? Zer egin behar da horrelako egoera baten aurrean?...*

Elkarrizketa bukatzean, nahi izanez gero, dramatiza dezakezue komikian gertatutako egoera. Baina binetetan agertzen denaz gainera, buruan irudikatu duguna ere antzeztuko dugu, irudimenari ateak irekiz. Horretarako, taldeetan banatuko gara eta egoera bera antzeztuko dugu osorik, hau da, memento berean Martin tailerra ematen arituko da eta haurrak kultur etxera helduko dira. Haurrak pasilotik doazenean, komikian agertzen denaz gainera, beste elkarrizketa batzuk izango zituzten, seguruenik; bueno, bada, hori da ikasleek imajinatu, adostu, eta antzez dezaten nahi duguna.



## 51. Irakurzaletasuna

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.*

Martinek literatur tailerlean proposaturiko liburuak aitzakiatzat harturik, liburuetan agertzen den informazioaren behaketa eta identifikazioa egingo dugu, hau da, liburuetan idatzita dagoen ipuinaz gainera, aurreko eta atzeko azalean dagoen informazioaz ere jabetu egin behar dugu: idazlea nor den, marrazkilaria, zer sailtako liburua den, etab. Baina gelako liburuei behatzen hasi aurretik, aurre-ezagutzak ipiniko ditugu martxan, lehen zikloan ere behin eta berriro aritu baikin horrelako informazioari ere arreta jartzen.

- *Ba al dakizue liburuen aurreko eta atzeko azaletan, barrualdetik zein kanpoaldetik, zer informazioa mota agertzen den? Ba al dakizue zer den saila edo bilduma?...*

Ondoren, ekin iezaiozue gelako liburuak behatzeari, behaketaren ondoren, irizpide ezberdinen arabera sailka ditzakezue liburuak; idazle berberak idatzitakoak, bildumen arabera, marrazkilaria arabera, argitaletxe berekoak...

Aprobetxa ezazue aukera bai liburutegia antolatzeko eta baita ikasleek liburutegian dituzten ipuin edo liburuak ezagut ditzaten ere.

Unitate honetan irakurtzeko proposatzen dizuegun liburua Kuku saileko KIKIK KOKO NAHI DU (Txiliku, Elkar) da. Euskal Herriko tren-geltoki batean bizi zen loroaren gorabeherak kontatzen dizkigu oso era dibertigarrian. Ipuina irakasleak irakur diezaioke taldeari, egun jakin batzuetan zati batzuk irakurriz. Nahi izanez gero, irakaslea hasiko da irakurtzen ikasleak tentatzeko, eta hurrengo saioetan hurrek hartuko diote txanda. Edota, tarteka irakasleak edota haur batek irakur dezake kapitulu bat eta beste kapitulu batzuk bakarka irakur ditzakete hurrek.

Liburua irakurri ondoren, horren inguruko elkarrizketa burutu. Gustukoa izan duten, zer gustatu zaien gehien... Erakargarria izan daiteke KIKIren marrazkia egitea eta ipuinari buruzko iritzia orri berean idaztea.

Ipuinak irakurri ondoren, era honetako lanak burutzen baditugu, horien bilduma egiten has gaitezke “Gure liburu kuttunak” edo antzeko izenburupean.

## 52. Ipuinaren egitura: Azeria eta antzarak

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 34. eta 35. or.*

Bi orrialde hauetan zehar, ipuinaren egitura eta horren atalen inguruko informazioa adierazten zaie ikasleei zuzenean, ipuin batekin erlazionatuz.

Jakina da ipuinek ez diotela egitura jakin bakar bati jarraitzen, baina, ikasleei eredu bat eman nahian, ekoizpenerako baliagarria izango zaien eredu, alegia, ipuinaren egitura klasikoa hartu dugu eredutzat.

Ikasleek ipuinaren inguruko lanketa handia egingo dutenez eta aurre-ezagutza anitz, horiek martxan ipintzen saiatuko gara elkarrizketaren bidez:

- *Nik badakit ipuinei buruz gauza asko eta asko ikasi eta landu zenituztela aurreko urteetan; beraz, gaur ipuinen inguruko elkarrizketa izango dugu, horiei buruz dakigun guztia partekatuz.*

• *Zer da ipuin bat?*

- *Zer dakigu ipuinei buruz?*
- *Euskarria: Nolakoak dira ipuinak? Liburu itxurakoak.*
- *Testua eta irudiak: Zer daukate barruan? Idatzia, irudiak. Beti al dituzte? Eta ba al du zerikusirik idatziak irudiekin?*
- *Luzapena: Luzeak edo laburrak izaten al dira?*
- *Idazlea: Nork idazten ditu ipuinak? Idazleak, tradiziozkoak.*
- *Hartzailea: Nork irakurtzen ditu edo nori irakurtzen zaizkie ipuinak?*
- *Irakurtzeko modua: Nola irakurtzen dira ipuinak? Bakarka, taldean.*
- *Funtzioa: Zertarako irakurtzen ditugu ipuinak?*
- *Formulak: Nola hasten dira? Izenburua eta hasierako formula. Nola bukatzen dira? Bukaerako formula eta irakatsia... Zer adierazten du izenburuak? Zertarako eta zergatik erabiltzen direla uste duzue hasierako formulak? Eta bukaerakoak?*
- *Gaiak: Zer kontatzen dute ipuinek, hau da, zeri buruzkoak izaten dira? Denetariko gaiak.*
- *Errealitatearekiko lotura: Egiazko edo alegiazko gaiak kontatzen dituzte?*
- *Lexikoa: Zer hitz mota azaltzen dira?*
- *Egitura:*
  - *Lekua, garai/denbora: Nork kontatzen digu ipuinak? Mementoan gertatzen den istorioa edo jadanik burututakoa kontatzen digute? (Aditz formak, oraina, lehena), Non gertatzen dira istorio horiek? Beti leku berean?*
  - *Parte-hartzaileak/pertsonaiak: Nor edo nortzuk agertzen dira ipuinetan? Nolakoak izaten dira? Pertsonak, animaliak, pertsonaia fantastikoak edo objektuak.*
  - *Arazoak/gertakizunak: Zer kontatzen dute pertsonaia horiei buruz? Zer eratako ekintzak gertatzen zaizkie?*
  - *Bukaera: Nolako bukaerak izaten dituzte? Zorionsua, bukaera irekia...*
- *Erabilpena: Behin ipuina irakurrita dugula, zer egiten da euskarriarekin? Gorde eta nahi beste aldiz irakurri, trukatu...*

Elkarrizketa bukatzean, jarduera amaitzeari ekingo diogu. Hasteko, lehenengo orrialdeko irakurketa bertikala egingo dute ikasleek bakarka, hau da, ipuina irakurriko dute goitik behera, haren egituraz jabetzeko asmoz. Taldean, horren inguruko elkarrizketa bultzatuko dugu ulermen-estrategiak martxan ipiniz eta baita ipuinaren egitura azpimarratuz ere.

Gero, bi orrialdeen irakurketa horizontala egingo dugu, ipuinaren atalei buruzko informazioa barneratuz joateko asmoz. Bukatzeko, ikasleek, bakarka, irakurritako informazioa ulertu duten jakiteko, ipuinarekin erlazionatu beharko dute eta orriaren eskuinaldean goitik behera dituzten galderak erantzun beharko dituzte.

Memento egokia da hau IPUINEN MUNDUA txokoa martxan jartzeko. Ipuinaren egitura eta atalei buruzko informazioa kartulinetan jarri (talde handian nahiz txikietan egin dezakezue) eta itsats ezazue txoko horretan, ikasleek beharrezkoa dutenean informazio hori begi bistan izan dezaten.

### **53. Ipuina ekoizten**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Aurreko zikloan ipuinaren inguruko lan batzuk egin zituzten, gehienak taldean izan baziren ere, bigarren mailaren bukaera aldera ipuinari bakarka heltzeko aukera

batzuk izan zituzten. Hala ere, oraindik asko dago lantzeko eta garatzeko, gai honi dagokionez.

Beraz, aurtengo lehenengo ipuina, gidoi jakin baten gainean, taldean ekoitziko dugu, ipuin bat planifikatzeko eta ekoizteko orduan eman beharreko urratsak zein ziren gogora ekarriz.

Lehenik eta behin, xedea argituko dugu (ipuinak gozatzeko dira), eta gure ipuina planifikatzen hasiko gara. Ondoren, arbelean kopiatuko dugu ipuina garatzeko erabiliko dugun gidoia. Denon artean aztertuko dugu gidoia (adibide moduan beheko hau duzue, serio samarra aukeran, baina nahi duzuen sor dezakezue).

- NOIZ: Udako oporretan.
- NON: Kuadrillako txabolan.
- HASIERA:** - NOR: Aitziber, 8 urte.  
Kepa, 8 urte.
- NOLAKOA: Jostalaria eta alaia, Aitziber.  
Bihurria eta astakirten samarra, Kepa.
  
- GERTAERAK:** - ARAZOA: Txabolako gauza guztiak puskatuta eta nahasirik aurkitu dituzte.
- EKINTZAK: Beste lagunei deitu.  
Arrastoak bilatu.  
Erantzuleak aurkitu.  
Borrokan hasi.  
Batek mina hartu.  
Guztiak kezkatuta eta laguntzen.
  
- ONDORIOA: Hitz eginez gauzak konpon daitezke.
  
- BUKAERA:** - AMAIERA: Guztiak kuadrilla eta txabola bereko kide dira.

Jarraian, ahoz eta taldean, ipuina garatzeari ekingo diogu. Idatzi ere egin dezakegu, nahi izanez gero, eta baita editatu ere.

## 54. Ipuina ekoizten, sormena astintzen

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koaderno, 7. orrialdetik 9.era*

Talde handian, ipuinaren asmoa edo xedea argituko dugu, zer egingo dugun eta zertarako. Ondoren, denon artean, ipuina ekoizteko ideiak sortuko ditugu, horretarako sormena astinduz.

Ekoizpen-estrategiak landu nahian, jarduera honekin lehenengo unea jorratzeari ekingo diogu, hau da, planifikazioaren barruan, ipuin bat garatzeko behar ditugun ideiak sortuko ditugu. Edonon aurki ditzakegu ipuin bat egiteko aproposak izan daitezkeen ideiak: etxetik ekarritako argazki batean, aldizkari zein egunkari batetik moztutako argazkian, komiki bateko bineta batean, marrazki batean...

Hartara, argazki, marrazki edo irudien bilketa egitea proposatzen dizuegu.

Ondoren, irudi edo argazki bat erakutsiko diegu ikasleei eta, denon artean, ideiak botatzen hasiko gara. Nor izan daitezkeen hor agertzen diren pertsonak/objektuak/pertsonaiak, izen bereziak jarriko dizkiegu, arazoak edo gertakizunak asmatzeari ekingo diogu, horiek saihesteko bideak aurkitu, etab.

Sormena astintzeko, binomio fantastikoa ere erabil dezakezue. Posible da ikasleek ideia hori ezaguna izatea, baina komenigarria da berriro ere freskatzea:

Anjel Lertxundik bere *Haur literaturaz* liburuan, Gianni Rodari idazle italiarraren binomio fantastikoaren ideia aipatzen du, ipuin klasiko eta modernoek, eta literatura osoak ere, binomio fantastiko baten bidez funtzionatzen dio. Ideia hori ipuinak ekoizteko oso tresna baliagarria izan daitekeelakoan, geuk ere geureganatu eta ikasleei eskaintzea erabaki dugu.

Honela definituko genuke binomio fantastikoaren ideia:

Har dezagun bizitzan erabat normala den elementu “A” bat, har dezagun bizitza normalean erabat normala den elementu “B” bat, eta sarritan, A eta B elementuak elkartuz, erlazio fantastikoak sortzen zaizkigu.

Adibidez: A = Elefantea; B = Titarea

Elefantea eta titarea esanez gero, ez dugu erlazio fantastikorik sortzen, baina bai titarea bezain txikia zen elefantea esanez. Eta erlazio fantastikoaren formulazio soilak ipuin bat irudikatzen garamatza. “Titarearen neurriko elefantea”.

Binomioak neurritz, funtzioz, izaeraz, eta abarrez antagonikoak diren elementuekin sortuz gero, ipuinerako joko handiagoa izan dezakezue. Adibidez: “Katurik ezagutzen ez zuen saga”, “Hitz egiten zuen baloia”, “Okerretara zebilen erlojua”, “Hegorik gabeko tximeleta”...

Edozein dela ere ideiak sortzeko aukeratzen duzuen bidea, horiek sortu ondoren, ikasleek horietatik gehien gustatu zaiena aukeratuko dute eta, ipuinaren atalak eta azpiatalak kontuan izanik, jaulkitako ideiak gidoi txiki antzera antolatuko dituzte papertxo batean. Gero, ideia horiek garatuz, ipuina ekoitziko dute euren lan-koadernoan.

Bukatzean, berrikuspena eta autozuzenketa bideratuko ditugu (kodea idaztea, ortografia, koherentzia, kohesioa, loturak...; gogoratu zuzenketa guztiak batera egitea ezinezkoa gertatzeaz gainera, ikasleei nolabaiteko frustrazioa ere ekar diezaikeela; beraz, lehentasunen arabera bideratu zuzenketa horiek), guk pistak ematen badizkiegu ere, aukera eman ikasleei euren hutsegiteez jabetzeko eta euren lanak zuzentzeko.

Egoki ikusiz gero, edizio lana ere egiteko aukera duzue, ordenadorez nahiz eskuz.

## 55. Esamoldeak

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 14. or./Ikaslearen liburua, 36. or.*

Aurten unitate guztietan zehar ERRANAK ERRAN atala azalduko zaizue. Bertan, euskal esaera eta esamoldeak aurkituko dituzue; horien helburua gure ahozko hizkuntza aberastea litzateke, tradizioz erabili izan diren erranak geureganatuz. Unitate honetan, irakurgaietan dugun elkarrizketan agertzen zaizkigu esamoldeak, barkamena eskatzeko hiru esamolde eta pikutara bidaltzeko beste hiru. Elkarrizketa hau irakurri aurretik komenigarria da, lehenik eta behin, irakurketa horren xedea argitzea, hau da, liburuan irakurriz zein den irakurketa horretatik ateratzea eskatuko zaien informazioa garbi edukitzea. Ondoren, ikasleek, bakarka, irakurgaia irakurri, esamoldeak identifikatu, izaeraren arabera sailkatu eta jarduera osatuko dute. Gero, taldean, zuzentzeari ekingo diogu eta baita elkarrizketa bultzatu ere, elkarbizitzaren inguruan, hau da, ea noizbait ikusi duten edo bizi izan duten elkarrizketa horretan adierazten den egoera galdetuko diegu, etab.

Bukatzeko, ikasleek, binaka, orrialde horretan aurkeztzen zaizkien hiru egoeretatik bat aukeratu edo, bestela, eurei otutzen zaien bat aukeratu eta horrelako esamoldeak txertatuz, antzeztu egin beharko dute.

## **56. Auzoetako jaiak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or.*

Ikasleei tarte bat emango diegu orrialde horretan dagoena irakurtzeko eta ulertzeko. Ondoren, taldean, elkarrizketa sortuko dugu aurre-ezagutzak eta Tough-en hizkuntza-funtzio batzuk martxan ipintzeko; hizpide: auzoetako jaiak. Tonttorpeko jaien egitarauari erreparatuko diegu eta bertan aurkezten den informazioaz jabetzeaz gainera, egitaraua testu mota modura aztertuko dugu, datuak adierazteko modua, orduka ekintzen adierazpen zehatza, modu laburrean adierazita eta xehetasunik gabe. Ondoren, jardueri ekingo diegu, bertsolaritzaren inguruko hausnarketa egiteko asmoz.

Bukatzean, irakurgaietara joko dugu, bertan dauden bertsoak eta pasadizoak irakurriz gozatzeko.

## **57. Bertsoak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 15. or./BERTSOZ PLAY liburua eta bideoa*

Arkaitz Estiballes eta Ekaitz Goikoetxeak Tonttorpeko jaietako asto-lasterketa aitzakiatzat hartuta egindako bertsoak bakarka irakurtzeko tarte emango diegu ikasleei. Bertsoak irakurri ondoren, bertso-txapelketa nahiz bertso-saietan bertsoak bideratzeko moduari buruz hitz egin dezakezue, gai jartzailea, paperen banaketa, doinuen aukeraketa, etab. Gogoratu bertsolaritzan sakondu nahi izanez gero, Ikastolen Elkarreak maila honetarako propio sorturiko BERTSOZ PLAY liburua eta bideoa erabiltzeko aukera duzuela. Egileak Mikel Aizpurua, Antton Kazabon eta Mikel Mendizabal dira.

## **58. Lazkao Txikiren pasadizoak**

*Lan egiteko era: Tale handian/Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 16. eta 17. or.*

Bertsotan gabiltzala, euskal bertsolari ospetsua izan zen Lazkao Txikiren pasadizoak irakurtzeko tarte emango diegu ikasleei. Interesgarria litzateke bertsolari honi buruzko informazioa biltzea ere, ahoz nahiz idatziz, informazio-iturri ezberdinak erabiliz. Lazkao Txikiren marrazki bizidunen bideoa eskuratzeko aukera baduzue, egin iezaiozue tarte jarduera honen ostean.

## **59. Bertsoa osatzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 10. or.*

Edozein dela ere zuek aztertutako herri edo hiriaren izena, lan-koadernoan aurkituko duzuen bertsoaren lehenengo esaldia osatu eta gero, zakuan dauden esaldiak ordenatu eta idazten badituzue, zuen herriari buruzko bertso dotorea izango duzue emaitza bezala, buruz ikasi eta proiektua aurkezten duzuen egunean abesteko. Ikasleek, bakarka, jarduera burutzen hasi baino lehen, ekar ezazue gogora bertsoa ordenatzeko erabil ditzaketan estrategiak, hala nola irakurri esaldi bakoitza eta horren zentzuaz jabetu, oinak identifikatzea eta esaldi bukaeran jartzen direla gogora ekarri...

## 60. Entzunaldia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: CDa, abestiak, 6. pista*

Ziklo honetan ere, ikasleek Urtxintzarekin hasi zuten bideari ekinez, musikako entzunaldiak lantzeari ekingo diogu. Horregatik, une egokia da hau gure konpositoreen txokoa martxan jartzeko. Bertan, urtean zehar landutako entzunaldien konpositoreei buruzko informazioa itsatsiko dugu. Gure konpositoreen txokoan hauek izango dira batik bat jarriko ditugun datuak:

- Konpositorearen izena, argazkia eta biografia.
- Entzunaldiaren izenburua.

Lehenengo unitate honetan gure pertsonaiek euren herriko auzoko jaietako egitaraua erakutsi digute, bertan ikusi ahal izan dugu gauean dantzaldia dagoela; bada, hori da erabiliko dugun aitzakia entzunaldirako, eta elkarrizketa bultzatuko dugu:

- *Ba al dakizue zer den dantzaldia? Zer egiten da bertan? Egon al zarete inoiz erromeria batean? Zer musika mota entzuten da? Dantzatzekoa edo entzutekoa...*
- *Bada, Tonttorpeko erromerian/dantzaldian Zaputz taldea izango da. Baina gurean, Oskorri. Ezagutzen al duzue? Zer dakizue talde horri buruz? Zer disko edo kanta ezagutzen duzue? Izan al zarete inoiz eurek eskainitako kontzerturen batean? Ba al dakizue zer den Pub ibiltaria? Oskorri zuzenean eskainitako eta jendeak abestuz parte hartzeko aukera duena...*

Oskorri taldea euskal musika-talde bizkaitarra da, 1971ean sortu zena. Folk eta herri-musika lantzen ditu eta makina bat kantaldi eman ditu Euskal Herri osoan eta baita atzerrian ere. Herri kantak eta euskal poeten lanak musikatu ditu maiz. Euskal musikan ondo errotutako talde historikoa dugu, gaur egun oraindik dirauena.

Interesgarria litzateke talde honi buruzko informazioa bilatzea taldean, historia apur bat, zer disko argitaratu dituen, diskoren bat gelara eraman eta entzutea, etab.

Entzunaldi honetan bildutako informazioa (taldearen argazkia, gehi taldearen historia edo horri buruzko informazioa) “Gure konpositoreen txokoa”n itsatsiko dugu. Eta horrekin batera baita entzutea eta dantzatzea dagokigun “Txulalai” dantzaren izenburua ere.

### Elkarrizketa

Hasteko, musika jarriko dugu eta ikasleek entzun besterik ez dute egin beharko. Ondoren, elkarrizketa bultzatuko dugu: alde batetik, saiatuko gara musika horren izaera definitzen (alaia, lasaia...); jarraian, musikak sorrarazi dizkien sentimenduei buruz galdetuko diegu (arintasuna, poza...); horren ostean, musika horren erabilpenari buruz hausnartzeko eskatuko diegu: Eguneko zein mementotan entzungo zenukete musika hau? Ohera joateko orduan? Egunean zehar? Goizean altxatu berritan? Erromeriez gainera posible ikusten al duzue beste noizbait beste nonbait musika hori jartzea zerbait alaitzeko? Noiz edo non?...

Aurreko galdera horiekin musika mota hori identifikatzeaz gainera, ikasleak musika motak daudela eta bakoitza entzuteko mementoak ere badirela jabetzea da gure helburua.

## Dantza

Elkarrizketaren ostean, dantza horren urratsak irakatsiko dizkiegu ikasleei.

Musika honek hiru une ditu, oso ondo eta erraz bereizten direnak.

1. Korroan eta eskutik helduta ikasleak saltoka norabide berean mugitzen hasiko dira esaldi horrek irauten duen beste. Esaldi bera berriz entzutean norabidea aldatuz, beste alderantz mugitzen hasiko dira.
2. Korroan geldirik eta eskuak askatu gabe, besoak aurrera eta atzera mugituko dituzte, musikaren erritmoari jarraituz. Besoek aurrera egiten duten bakoitzean, hanka eskuina ere korroaren erdira altxatuko dugu. Eta besoekin atzera egiten dugunean, oinekin bat-bi-hiru erritmoan, zaldi saltotxo emango dugu. Hori eginez jarraituko dugu musika-sekuentziak irauten duen bitartean. Musika-sekuentzia hori amaitzera doan seinale musikaren abiadura azkartzea izango da.
3. Hirugarren zatian, ikasleek abiadura bizian elkarri ipurdiak joka jardungo dute musikaren sekuentziak irauten duen zatian.
  - Hiru sekuentzia horien ostean, berriz errepikatu behar da lehenengoa. Bukatzean, burua korro erdira jaitsiz, agurtu egin dezakete.

### Sentimenduen aldizkaria

Dantza bukatzerakoan, horrek sortu dizkien sentimenduaren inguruko aldizkaria osa dezakegu. Ikasle bakoitzak dantzak eta musikak sorrarazi dizkion sentimenduak hitzen bidez eta baita marrazketa/pintaketa bidez adieraziko ditu. Hitzek sentimendua adieraz dezakete, edo esaldi esanguratsu bat izan daiteke, edo olerki bat... Irudia ez du zertan figuratiboa izan, abstraktua ere izan daiteke. Hori bai, ikasleek erabilitako hitzak, koloreak, etab. sentimendu hori definitzen eta transmititzen saiatuko dira; adierazi hori ikasleei. Lan guztiak bilduz gero, aldizkari polita osa dezakezue.

## 61. Iritzi-errota - Marrazkia aztertzen

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 38. or.*

Ikasleei, bakarka, marrazkiari arretaz behatzeko denbora eskainiko diegu eta, ondoren, elkarrizketa bultzatuko dugu, Tough-en hizkuntza-funtzioak martxan jarritz, marrazki horretan agertzen diren xehetasunak oinarritzat harturik:

- *Horma-irudi hori badirudi Ttonttorpe auzoko jaietan ateratako argazkia dela, beha diezaiogun arretaz, eta aipa ditzagun bertan ikusitako pertsonen ekintzak.*

*Ekintza horiek ohikoak direla uste al duzue? Hau da, edozein egunetan edozein ordutan zuzentzat ikusiko al genituzke? Eta jaietan horrelako ekintzak zuzenak al dira? Zergatik batzuk bai eta besteak ez? Nork erabakitzen du zuzenak edo okerrak diren?*

- *Zuek egin al duzue horrelakorik zuen auzo edo herriko jaietan? Esperientziak kontatu. Nola sentitzen zara horrelakoetan? Nola sentituko dela uste duzue zuk egindakoa pairatu behar duena? Edozer gauza egin aurretik ekintza horrek ekar diezazkigukeen ondorioez pentsatzeko ohiturarik ba al duzue?...*

## 62. Kausazko esaldiak

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 11. eta 12. or.*

Bizitzan, edozein gauza arrazoitzeko orduan, nola edo hala, zergatik galderari erantzun behar izaten diogu, eta, horretarako, kausazko esaldiak erabiltzen ditugu. Ikasle askoren ahotan entzuten dira maiz erantzuteko modu okerrak, euskarak gaztelerarekin bizi duen ukipen egoera dela eta. Horri aurre egiteko eta ikasleek esaldi mota horiek barneratzeko asmoz planteatu dugu lan-koadernoan jarduera hau, CD-ROMean sakontzeko aukera izanik.

Hasteko, utzi ikasleei tarte bat orrialde horretan agertzen dena irakurtzeko. Gero, bultza ezazue elkarrizketa “euskañol”/”euskafrants” hitzaren inguruan:

- *Zer esan nahi du euskañol hitzak? Benetako hitza al da ala hitz-joko bat? Zer bi hizkuntza uztartzen dira euskañolez hitz egiten dugunean? Zergatik hitz egiten dela uste duzue batzuetan euskañolez? Zuek horrela hitz egiten al duzue? Noiz? Zergatik? Zer ondorio izan ditzake horrela hitz egiteak? Abantailarik ba al du zuen ustez?...*

Ondoren, taldean, argitu ezazue egin beharra eta, gero, ikasle bakoitzak, bakarka, egin ditzala kausazko perpausei dagozkien jarduerak.

## 63. CD-ROMa (kausazko esaldiak)

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: CD-ROMa*

CD-ROMean hainbat dira kausazko esaldiak lantzeko aurkituko dituzuen jarduerak, ikasleek, bakarka edo binaka, osa ditzaketanak. Hala ere, gogoratu, bideo-proiektagailua erabiltzeko aukera baduzue, CD-ROMaren erabilpena eta jardueraren aurkezpena talde handian egin dezakezuela.

## 64. Iritzi-errota prozedura

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 39. or.*

Ondoren, 39. orrialdean, aurten konstantea izango den iritzi-errotaren aurkezpena irakurriko dugu talde handian eta baita bertan agertzen diren urratsak argitu ere. Edozein dela ere eztabaidagaia, garrantzitsua da ikasleak kritiko izateko gaitasuna garatzea, euren iritzia modu egokian (adierazpen —hizkuntza eta tonu aldetik— nahiz jarrera aldetik) adieraztea, besteen iritziak errespetatzen jakitea; azken batean, iritziak zuzentasunez trukatzeko ikastea. Iritzia modu formal batean planteatuko duten lehen aldia denez, eman iezaiozue jarduera honi behar beste denbora, eta zain ezazue arretaz eta kontu handiz prozedura bera. Gogorarazi ikasleei oso garrantzitsua dela txandak errespetatzea eta hitza eskatzeko eskua altxatzea irakasleak bere izena idatz dezan eta dagokionean hitz egiteko bidea izan dezan.

Garrantzitsua da jakitea, baita ere, iritzi-errota baten helburua iritzi ezberdinak daudela ikustea dela, iritzi horren oinarrian zer argudio dauden eta ez horrenbeste kontrako iritzia dutenak gureaz konbentzitu nahia. Gure argudioak sendoak badira, gerta dakieke iritzi aldutzea, baina aukera hori euren baitan egongo da, ez norberarengan.



Iritzi-errotaren zentzia ulertzen lagunduko dien euskal esaera hau aipatzea eta honen esanahia argitzea ere ondo letorkizueke: ZENBAT BURU, HAINBAT ABURU!

Ikasleei gaiaren inguruan hausnartzeko tartea emango zaie jarduera martxan jarri aurretik. Oso garrantzitsua da hausnartzeko uneak ematea ikasleei. Aurrekoak adinako garrantzia du, baita ere, eztabaida- edo iritzi-trukaketaren ondoren egiten den hausnarketak, besteek adierazitako iritziak eta iritzi horiek justifikatzeko argudioez gainera, horien inguruan ematen den bestelako informazioak ere, norberaren iritzia zalantzan jarri eta birplanteatzeko aukera ematen baitute. Horregatik, interesgarria da iritzi-errotaren hurrengo egunean-edo berriro ere gogora ekartzea hitz egindakoa, eta ikasleei galdetzea ea aurreko egunean esandako iritzi bera mantentzen duten oraindik edo zalantzan jarri duten edo aldatu duten eta baita zergatik egin duten hori ere.

Hori guztia egin ondoren, taldean, proiekturako baliagarria izango zaizuen, herrian edo auzoan errespetatzea nahiko zenituzketen elkarbizitzarako arauen zerrenda osa dezakezue.

Arauekin zabilatzaten honetan, aukera duzue gelako arauen inguruan iritzi-errota martxan jartzeko ere, denon artean erabaki dezazuen zein diren gelako elkarbizitza errazago izan dadin bete beharko liratekeen arauak eta zergatik litzatekeen komenigarria horiek betetzea. Tutoretza-ordua oso egokia litzateke alderdi hori lantzeko.

#### **65. “Herriko plazan” olerkia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 18. or.*

Ikasleek, bakarka, Joxan Ormazabalaren olerkia irakurtzeari ekingo diote eta, ondoren, talde handian, solasaldia egingo dugu olerkian planteatzen den arazoaren inguruan. Saia zaitezte, ikasleek euren iritzia emateaz gainera, arazo horri soluziobideak topa ditzaten bultzatzen.

#### **66. Mainerren txoko kuttuna**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 40. or.*

Ikasleek, bakarka, Mainerren txoko kuttunaren testua irakurtzeko eta ondoren agertzen diren galderei erantzuteko denbora izango dute. Gero, talde handian irakurriko dugu eta elkarrizketa sortuko dugu ulermena egiaztatzeko. Bukaeran, testu mota horren inguruan hausnartzeko bidea emango diegu ikasleei:

- *Zer testu mota dela esango zenukete? Toki-deskribapena. Zer atal ikusten dituzue testu horretan? Zer-nolako hitzak erabiltzen dira?...*

Lan-koaderenok jarduerak burutu ahala, jabetuz joango diren testu mota honen ezaugarrien inguruko galderak eginez, aurre-ezagutzak ipiniko ditugu martxan.

## **67. Txoko Kuttunaren deskribapena 1**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 13. or.*

Ikasleek, bakarka, Mainerren toki-deskribapenean oinarrituta, euren Txoko Kuttunaren deskribapena egingo dute. Toki-deskribapenaren egitura eta ezaugarriak landu ondoren, aurrerago, berriro egin beharko dute haren deskribapena eta horrekin alderatu. Beraz, esan genezake aurre-ebaluaziorako balioko digula lan horrek.

## **68. Toki-deskribapenaren lanketa**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 14. or.*

Orrialde honetako azalpenaz gainera, eskatzen zaiena ulertzeko tarte bat emango diegu ikasleei eta, ondoren, deskribapenaren definizioa asimilatzeke asmoz, unitateko Mainerren “Txoko Kuttuna”ren deskribapena irakurri eta haren irudia egin beharko dute. Modu honetan, deskribatzeko orduan jarraitzen den ordenaz ere jabetzeko aukera izango dute.

## **69. Leku-antolatzaileak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 15. or.*

Toki-deskribapenetan elementuen kokapena adierazteke orduan, leku-antolatzaileek duten garrantziaz jabetzeko asmoz, taldean, orrialde horretan agertzen zaiguna argituko dugu eta hor agertzen diren leku-antolatzaileez gainera, ezagutzen ditugun beste batzuk ere aipatuko ditugu. Gero, taldean, antolatzaile hauek testuinguru ezberdinetan erabiltzen ikasteko, ahoz, esaldiak asmatzeari ekingo diogu. Jarraian, ikasle bakoitzak bere lan-koadernoko orrialdeko jarduera burutzeari ekingo dio eta, berrikusi ondoren, ikasleek koadernoak trukatzeko dituzte zuzenketak (kodearenak, egiturari dagozkionak, ortografia...) bideratzeko. Ondoren, orrialde horretan agertzen direnez gainera, gelan aipatutako antolatzaile guztiak kartulintan idatziko ditugu, “Leku-antolatzaileak” izenburupean, eta gelan jarriko ditugu denon begi bistan, beharrezko ditugunean erabiltzeko.

## **70. Ortografiari behatzea**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 16. or.*

Ortografia behaketaren bidez lantzeko asmotan, ikasleek, bakarka, orrialde horretan agertzen den jarduera osatu beharko dute. Gero, taldeko solasaldia sortuko dugu “h” letraren erabilpenaren eta garrantziaren inguruan. Bukatzean, “h letraz idazten dira...” izenburupean urte osoan zehar osatuz joango zareten panela egin dezakezue. Oraingo honetan, erakusle eta eratorri erabilienak bertan idatziz (hau, hori, hura, han, hor, hemen...), eta urtea aurrera joan ahala beste hitz batzuk gehituz.

### **71. Sinonimoak eta antonimoak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 17. or.*

Ikasleei orrialde horretako informazioa bakarka irakurtzeko tartea eman ondoren, taldean argituko dugu egin beharrekoa. Ondoren, ikasleek, bakarka, jarduerak burutzeari ekingo diote.

### **72. Txoko Kuttunaren deskribapena II**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 5. lan-koadernoan, 18. or.*

Toki-deskribapenari buruz ikasitako guztia aplikatzeko aukera izango dute ikasleek, euren “Txoko Kuttuna”ren deskribapena berriro ere egin beharko baitute bakarka. Behin lana burututa dutenean, berrikuspena eta autozuzenketa lanak bideratuko ditugu. Bukatzean, talde handian, elkarrizketa bultzatuko dugu, deskribapena lantzeko sekuentzia hasi aurretik egindako “Txoko Kuttuna”ren deskribapena orain egindakoarekin alderatuz ikusitako aurrerapenei buruz.

### **73. CD-ROMa (leku-antolatzaileak, ortografia)**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: CD-ROMa*

Leku-antolatzaileak eta ortografia lantzeko jardueren eskaintza zabala duzue CD-ROMean.

### **74. Proiektua burutzen**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 41. or.*

Iritsi da unitatean zehar egindakoa bildu, antolatu eta adierazteko ordua. Ikasle kopuruaren eta hartzaileen adinaren eta kopuruaren arabera, gidoia antolatu beharko duzue (unitatea lantzeko erabili duzuen ordena bera izan daiteke ardatza), eta baita zati bakoitza nork/nortzuek aurkeztuko duten ere. Bestetik, mezua oso konplexua ez bada ere, hartzaileen mailako azalpenak egin beharko dituztenez, hau da, haur txikiagoek ulertzeko moduan adierazi beharko dutenez, komenigarria da entsaio txiki bat egitea eta hartzailearen tokian jartzen saiatzea, horren arabera mezua ulerkorra den erabakitzeko, eta ez bada, egokitze. Saiatu, oso monotonoa izan ez dadin, bertso edo olerkiren bat, txisteren bat tartekatzen gidoi horretan.

## 75. Sintesia

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 42. orrialdetik 44.era*

Sintesi orriaren helburua, ikasitakoaren errepassoa egiteaz gain, hainbat alderdi ebaluatzeko tresna bezala erabiltzeko aukera eskaintzea ere bada. Ikasleak sintesi orri hauek bete aurretik, unitatean zehar ikusi eta ikasitakoaren errepassoa egitea aholkatzen dizuegu.

Nolanahi ere, orriotan landutakoaren alderdi batzuk baizik ezin dira errepasatu. Hau da, dramatizazioaren, plastikaren eta aho-hizkuntzaren inguruan landu diren edukiak, prozesuan zehar (unitatean zehar dagozkion jarduerak burutzerakoan) behatu beharko dituzue, ez baitu zentzu handirik, hainbat prozesu luze azken unean eta behaketa egiteko asmoz berriro ere errepikatzeak. Hizkuntza idatziaren inguruko hainbat ekoizpen-lan luzeekin ere gauza bera gertatuko zaigu.

Bukatzean, interesgarria da, talde handian, elkarrizketa bultzatzea, unitatea, eurek burututako lana, gogoia, gozamina, proiektua, etab. era eraikitzaile batean balioesteko edota kritikatzeko.

## 76. Igarkizunak

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 19. or.*

Errepaso modura, ikasleek, bakarka, irakurgaietako igarkizunak irakurri eta asmatu egin beharko dituzte. Nahi izanez gero, deskribapen txikiak eginez, igarkizunetan edo asmakizunetan jolasteko aukera duzue.

## 77. Gurutzegrama

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 5. lan-koadernoa., 19. or.*

Bakarka eta errepasso modura, ikasleek lan-koadernoko gurutzegrama egiteari ekingo diote.

## 78. Diktaketak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka*

Hiru diktaketa hauek unitate hau landu bitartean irakasleak egoki ikusten duen unean egitea proposatzen dizuegu.

Diktaketa-jarduerak bi eratara buru ditzakezue:

1. Diktaketa egin aurretik arbelean idatzi diktatuko duzuen testua. Behatu, aztertu, (puntuazio-arauak eta horien zergatia, ortografia...) eta, ondoren, diktaketa eginez.
2. Diktaketa egin eta gero, arbelean idatzi eta autozuzenketa edo ikasleen arteko zuzenketa bideratuz.

Jarduera bukatzean, tarteka eman ikasleei diktaketan jartzen duenaren irudia egiteko aukera, era horretan, entzundakoaren/irakurritakoaren inguruko ulermena ere landuko dugu.

### Diktaketa 1

Goizero, Mei Li, Xabier eta Maider, Ttonttorpeko alde zaharrea dagoen plazan elkartzen dira eta elkarrekin egiten dute ikastolarako bidea. Xabier eta Mei Li txor-txor, isildu gabe, joaten dira; Maiderrek, berriz, ez du hitz egiteko ohitura handirik. Ikastolatik ateratzen direnean, ostera, bera da gehien hitz egiten duena, oso gustuko baitu egunean zehar egindakoa beste biei kontatzea.

### Diktaketa 2

Martin eta Kleo herriko azokara joan dira erosketak egitera. Martinek oso gustuko du sukaldari-lana egitea, horregatik, jakiak nekazariei zuzenean erostea gustatzen zaio. Gaur “porru-patatak” egiteko asmoa duenez, osagaiak papertxo batean idatzita eraman ditu: porruak, patatak, azenarioa eta baratxuriak. Martin azokan erosten ari den bitartean, Kleo, gozodendara joan da, “postrea nire kontura” esanez.

### Diktaketa 3

Irakurgaietako nahiz unitatean bertan agertzen den testu zati baten diktaketa egin dezakezue edo eta zeuek egoki ikusten duzuen besteren bat.

## Musikako lan-koadernoak

### 1.1.UDA JOAN ZAIGU

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.1 fitxa/CDa, jarduerak, 1. eta 2. pista*

Oporrak amaitu dira eta berriro ikastolan bildu gara. Oso gogoan ditugu oraindik oporretako kontuak, eta guztiok kontatu nahi ditugu oporretan bizitakoak.

Batzuek mendi-giroa dugu gustuko; beste batzuek, berriz, itsaso-giroa. Hiri handietan barna ibiltzeko desioa duenik ere bada. Dena dela, gauza bat dago argi: guztiok pozik ibiltzen garela oporretan.

Geurera itzuliz, ziurrenik, bai itsasoko giroa, bai mendikoa ezagutzeko eta bizitzeko aukera izan dugu guztiok udan zehar, eta hona hemen hori guztia gogoratzeko lan erraz bat:

CDan zortzi soinu aurkeztu ditugu. Lau itsaso-girokoak dira eta beste laurak mendian jasoak. Horietako bakoitza koadernoan, dagokion zerrendan idatzi behar da eta, gogoeta egin ondoren, giro bakoitzeko hotsak irudikatu eta zerrenda osatzea izango da egin beharreko lana.

### 1.2 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: “HALAXE BEDI”

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.2 fitxa/CDa, jarduerak, 3. pista*

Bigarren maila amaieran txirula lantzen eta jotzen ikasten hasi ginen. Orain, orduan ikasitako hiru notak berreskuratu eta errepasso txiki bat eginez hasiko gara. Errepika-ariketak landuko ditugu, lehenik; hau da, irakasleak proposaturiko eskema erritmiko erraz batzuek osatutako melodia sinpleak ikasleek txirula joz errepikatu beharko dituzte.

ADIBIDEAK:

IRAKASLEAK	IKASLEEK TXIRULAZ
q q e e q SI SI SI SI SI	q q e e q SI SI SI SI SI
q q e e q LA LA LA LA LA	q q e e q LA LA LA LA LA
q q e e q SI SI LA LA LA	q q e e q SI SI LA LA LA
q q e e q SI SI SI SI LA	q q e e q SI SI SI SI LA
q q e e q SI LA SI SI SI	q q e e q SI LA SI SI SI
q q e e q SI LA SI SI LA	q q e e q SI LA SI SI LA

q q e e q SI LA LA LA LA	q q e e q SI LA LA LA LA
q q e e q SI LA SI LA LA	q q e e q SI LA SI LA LA
q q e e q LA LA SI SI LA	q q e e q LA LA SI SI LA
q q e e q LA SI SI SI LA	q q e e q LA SI SI SI LA
q q e e q LA SI LA LA SI	q q e e q LA SI LA LA SI
q q e e q SOL SOL SOL SOL SOL	q q e e q SOL SOL SOL SOL SOL
q q e e q LA LA SOL SOL SOL	q q e e q LA LA SOL SOL SOL
q q e e q LA LA LA LA SOL	q q e e q LA LA LA LA SOL
q q e e q LA SOL LA LA SOL	q q e e q LA SOL LA LA SOL
q q e e q LA SOL SOL SOL SOL	q q e e q LA SOL SOL SOL SOL
q q e e q LA SOL LA SOL SOL	□□□□□ LA SOL LA SOL SOL
□□□□□ SI LA SOL SOL SOL	□□□□□ SI LA SOL SOL SOL
□□□□□ SI SOL SOL SOL SOL	□□□□□ SI SOL SOL SOL SOL
□□□□□ SI SOL SI SI SOL	□□□□□ SI SOL SI SI SOL
□□□□□ SI SOL LA LA SOL	□□□□□ SI SOL LA LA SOL
□□□□□ SI LA SI SI SOL	□□□□□ SI LA SI SI SOL
□□□□□ SI SOL SI SI SOL	□□□□□ SI SOL SI SI SOL

“Halaxe bedi” kantua lantzen hasteko, lehenik, eskema erritmikoa irakurtzen hasiko gara. Zer zelula azaltzen diren ere aztertuko dugu (beltzak, kortxeak eta isiluneak). Eskema denok batera ahoz irakurri ondoren, gorputz-atal baten partaidetza beharko dugu aurrera egiteko. Bide hau proposatzen dizuegu: esan berri dugun bezala, hasteko, ahotsezko irakurketa egingo dugu (dilin dan, dilin dan... edo antzeko modu bat erabili). Ondoren, txaloak joz eta aldi berean ahotsa ere erabiliz. Azkenik, ahoa itxi eta

txaloak joz bakarrik interpretatuko dugu koadernoan dugun eskema erritmikoa. Ibilbide berdina egingo dugu txaloen ordez, ariketan proposatzen den bezala, perkusiozko musika-tresna bat erabiltzen dugunean.

Demagun alde erritmikoa barneratu dugula. Orain, nahi izanez gero, bukaera arte itxaron gabe, bertsoaz jabetu eta letraren irakurketa erritmikoa egin genezake: “*Urte bat, urte bi; gora Lapurdi! Hamaika, hamabi; halaxe bedi!*”.

Goazen, bada, segidan, melodiarekin hastera. Lehenik, zein nota agertzen zaizkigun ikusi behar dugu. Sol - La - Si. Galdeketa txiki bat antolatuko dugu:

- Zein da notarik altuena?
- Eta baxuena?
- Zein da gehien errepikatzen den nota?
- Zein gutxien azaltzen dena?

Irakasleak pentagramaren irakurketa egingo du. Ikasleen gutxiengo lana noten jarraipena egitea izango da. Bigarren irakurketa egingo da eta, oraingoan, ikasleen laguntza eskatuko da.

Goazen aurrera. Zortzi ikasle aukeratuko ditugu, eta bakoitzari zenbaki bat emango diogu: 1etik 8ra, kantak 8 konpas dituelako. Bakoitzari suertatu zaion konpasa aurkitu eta aztertzeko denbora eskainiko diogu. Irakasleak, ordena mantenduz, dagokion konpasa, oraindik intonatu gabe, solfeatu egin beharko du. Batek bere konpasa amaitu orduko, besteak, ahal bada, erritmoa galdu gabe, berearekin hasi beharko du. Horrela, 8 laguneren artean solfeatu dugu abestia. Horiek amaitzean, beste zortzi ikasleren txanda izango da.

Modu horretan, pentagramaren irakurketa behin eta berriz egin ondoren, denok batera irakurtzen hasiko gara. Irakaslea, pixkanaka eta astiro, notei intonazioa ematen hasiko da.

Azken urratsa emango dugu: txirula eskuetan hartu eta melodia ongi interpretatzen saiatuko gara. Eta ez ahaztu kantatzea!

Hurrengo musika-saiorako, “*Halaxe bedi*” kantua ezaguna egingo zaio haurrari, eta ez dugu egin beharko gaur egin dugun prozesu osoa; aski izango da urrats guztiak modu arinago batez lantzearekin.

CDaren erabilpenari buruz bakoitzak ikusiko du zer egin. Argi eduki behar da laguntza soil bat besterik ez dela. Hasieran, kantuaren ideia orokor bat egiteko erabil daiteke eta amaieran errepaso bat egiteko ere bai, baina inoiz ez irakaslearen ordeko bezala.

### **1.3 MAGIAZ BETERIKO HITZAK**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.3 fitxa*

Irudiei hitza jartzea izango da ariketa honetako betebeharra. Goazen fitxa aztertzerara:



- Lau zelula erritmiko agertzen dira: kortxea, beltza, zuria eta isilunea. Azken hau **Z** batez adierazita dago.
- Hiru nota: Si, La eta Sol.
- Musika-tresna bat: marakak.

Izen bakoitzaren hizkiak banan-banan idatzi eta forma berezien barnean daudenak aukeratu eta, behealdean, bakoitza dagokion tokian ipiniz mezu bat agertuko zaigu: **MUSIKA BIZI!**

Era honetako ariketen helburua musika-hizkuntzaz jabetzea da.

#### **1.4 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: “LAGUN ON BAT”**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 1.4 fitxa/CDa, jarduerak, 5. pista*

Hona hemen beste abesti labur bat. Berriro Sol - La - Si notak ditugu. Gogoratu errepasso modura ari garela. Beti bezala, erritmoa lantzen hasiko gara, eta, oraingoan ere, “irakurgaia” ezagutuz joateko, galdera batzuk eginez hasiko gara:

- Zein da gehiagotan errepikatzen den zelula erritmikoa?
- Zenbat aldiz?... Bururatzen zaizuen guztiak balioko du.

Eskema erritmikoa ahoz irakurri ondoren, posible bada, triangulua erabiliz interpretatzea eskatzen dugu. Denontzat ez badauzkagu, txandaturaz egingo dugu, edo, bestela, antzeko tresnak erabiliko ditugu, krotaloak, adibidez.

Pentagramarekin hasiko gara. Orain ere galdera mordoa egin daiteke:

- Zein da gehien agertzen den nota?
- Zenbat konpas ditu melodia honek?
- Zein da nota gehien dituen konpasa?
- Zein dira nota gutxien dituzten konpasak?...

Notak irakurriko ditugu. jarraian. Intonazioa sartzen joan gitezke edo eta aurreragorako utz genezake, edo eta txirularen esku utz genezake lan hori. Pentagrama dominatu samarra dugunean eta zalantzak usatu ondoren, jolasean hasiko gara. Irakasleak lehenengo lau konpasak irakurriko ditu eta lau azkenak ikasleei utzi. Orain, alderantziz: ikasleak hasiko dira, irakasleak amai dezan.

Ikasleek hasi behar duten kasuetan, oso garrantzitsua da sarrera ongi markatzea, denak batera eta abiadura berdinarekin hasteko.

Konpas kopurua murriztuz joango gara. Irakaslea hasiko da berriz, baina, oraingoan, bi konpas irakurriko ditu, ondorengo biak ikasleek, bosgarrena eta seigarrena, berriz, irakaslearentzat dira eta azken biak, jakina, ikasleentzat. Orain, alderantziz: ikasleak hasiko dira.

Amaitzeko, irakurri beharreko konpas kopurua bakarra izango da. Lehenik, irakaslea hasiko da eta bigarren konpasa ikasleek irakurri beharko dute, eta horrela amaitu arte. Ongi atera bada, ikasleak has daitezela oraingoan.

Taldeak beste modu askotan ere osa daitezke: neskak eta mutilak; atzekoak eta aurrekoak; ezker aldekoak eta eskuinaldekoak; praka motz eta luzedunak; etab.

Jolas horien bidez, konturatu gabe, askotan eta neke handirik gabe irakurri dugu pentagrama.

Kantuan eta txirula jotzeko dugu saioa. Txirula jotzeko garaian ere, aurrez erabilitako jolas-teknikak erabil daitezke. Adibidez, ordena bat ezarriko dugu, lehenik. Ikasleak biribilean badaude, abiapuntua eta martxaren zentzua adieraziko dira. Ikasle bakoitzak bi konpas jo beharko ditu txirulaz.

Helburua ikasle bakoitzak dagozkion bi konpasak jotzea izango da, hutsegiterik egin gabe. Norbaitek huts bat egiten badu, berriro hasiko gara.

## 1.5 ISILUNEA. ISILTASUNA ERE MUSIKA DA

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.5 fitxa*

Isilunea ere neurtu egiten da.

Biribil bat osatuz, ibilian jarriko ditugu ikasleak. Beltzen erritmoa markatuz, isilik mugituko gara:

□Z □Z (dan - ixo - dan - ixo) eskema landuko dugu.

Biribilean bueltatxo bat eman ondoren, ariketarekin hasiko gara.

Irakaslearen agindura, lehenengo pausaldia txalo baten soinuaz jantziko dugu eta ondorengo pausaldia, isiltasunari dagokiona, besoak zabalduz emango dugu.

Erraza egin bazaigu, eskema berriak idatziko ditugu arbelean: □ZZZ (dan - ixo - ixo - ixo). □□ZZ (dan - dan - ixo - ixo). Aztertu eta ibiltzeari ekin!

Azken batean, oinekin denbora markatzen ari gara: □□□□□□□□, eta soinua txaloen bidez egiten dugu. Denbora beti aurrera doa, baina denboraren une batzuetan soinurik ez dago, isilunea adierazten dugu, besoak zabalduz. Baina kontuan izan isilune horrek denbora edo luzetasun zehatza duela: beltz baten balioko isiltasuna, kasu honetan.

## 1.6 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: “EURIA MENDIAN”

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.6 fitxa/CDa, jarduerak, 7. pista*

Beste kantu bat: zortzi konpas, hiru zelula erritmiko, Sol - La - Si notak eta hitz errazez apainduriko melodia simple bat. Hori besterik ez.

Komenigarria ikusten dugu melodia edo kantu hauek egun bakarrekotako lana ez izatea, hau da, aurretik landutako ariketak, kasu honetan, “Halaxe bedi” eta “Lagun on bat”, noizean behin errepetatzea. Gauza ezagunak landuz konfiantza hartzen baitute.

Bestalde, ez dugu txirulako ariketa bakoitzean nola landu behar den argitzeko beharrik ikusten. Aurreko bietan egin dugu, eta antzeko zerbait egin dezakezue.

## **1.7 MUSIKARIEN TXOKOA: MARAKAK**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.7 fitxa*

Atal honen helburuak bat baino gehiago direla esan genezake. Alde batetik, zaborretara bota ohi ditugun hainbat gauzaren berrerabilpena, eta bestetik, guk geuk musika-tresnak sortzea.

Mota askotako marakak egin ditzakegu, baina, orainoan, bi motatakoak proposatzen dizkizuegu:

1. Plastikozko ur-botila txiki bat hartu eta sartu bertan arroz ale batzuk, dilistak, babarrunak, pasta, klipak, txintxetak, hiltze txikiak..., eta jarri estalkia.

Botila apaindu gometsak, zinta isolagarria, margoak, papertxo zatiak eta abar erabiliz.

2. Zilarrezko papera bilduta egoten den kartoizko hodi bat edo antzeko bat hartu eta, bi muturrak estaltzeko, kartoi mehe batekin prestatu estalkiak izango ziren bi biribil. Horietako bat itsatsi ongi zeloarekin alde batean. Sartu barrura nahi ditugun gauzatxoak: arroza, dilistak, txitxirioak... eta itsatsi beste estalkia.

Ondoren, apaindu hodia nahi duzuen materiala erabiliz, baina pista bezala, esango dizuegu oso polita gelditzen dela, besteak beste, koloretako zetazko paper zatiak kolaz itsatsita.

Zer egin dezakegu egin berri ditugun maraka horiekin? Edozer eskema erritmiko lantzeko erabili. Edozer kanta perkusioz laguntzeko erabili. Baina ez genuke horretan bakarrik geratu nahi. Soinuei behatu eta horiek aztertu nahi ditugu. Soinuaren araberako familiak osatuko ditugu. Barruan dagoena ikusten ez denez, belarriz asmatu beharko dugu maraka bakoitzaren barruan zer dagoen. Arrozak eta dilistek soinu desberdina egingo dute, nahiz eta botila bera izan.

Hodi barruan jarri ditugun klipek ere botilakoenaren soinu desberdina egingo dute. Maraka batzuen soinua besteena baino grabatua izango da.

Ikusten duzue, beraz, maraka sinple batzuek zenbat aukera ematen dizkiguten.

## 1.8 LETRA-ZOPA

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.8 fitxa*

Letra-zopa honetan hitz asko aurkituko dituzue, baina batzuek bakarrik dute musikarekin zerikusia. Horiek bilatzea izango da gaurko lana. Gehiago ere badaude, baina gutxienez 8 aurkitu beharko dituzte.

Agian, batek baino gehiagok pentsatuko du denbora galtzea dela horrelako jolasak egitea, baina, gure ustez, ikasitako hainbat gauza errepasatzeko balio dute, baita azterketa txiki baten modura ere.

### LAN-KOADERNOTIK APARTEKO ABESTIAK

Udazkena da. Gelan bildu gara eta ikasturte berriari ekingo diogu. Berriro lagun artean, gela berria, irakasle berria, lan berriak eta indar berriak. Goazen kantuan hastera!

Taldean kantatzeko kantua dugu hau. Kantua ikasi ondoren, honi laguntzeko, eskema erritmiko bat landu dezakegu ostinato eran, hau da, eskema berbera errepika dezakegu kanta guztian zehar. Baina txaloz bakarrik egin orde, oinaz lurra kolpatuz eta txaloak eginez arituko gara: hanka - txalo, hanka - txalo... (beltzak eginez).

### UDA BUKATU ZAIGU

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, jarduerak, 1. pista*

Uda bukatu zaigu eta oporrak joan dira,  
ikastolan bildu gara; goazen kantuan hastera!  
Berriro lagun artean ikasten eta jolasten,  
margotzen hasiko gara eta gero denak etxera.

Handi-handia egin naiz aurten uda garaian,  
handiago egin nahi dut ikasturte berrian.  
Txantxangorri bat sartu da leihotik eskolara;  
Txirula Mirula kantak ikasten hasi gara.

Maisu berriak ditugu, nor baino nor hobea;  
ongi konponduko gara; hau duk hau poza gurea!  
Marrazki politak daude gelako arbelean;  
agur, agur, andereño, gora irakaslea!

## TXALO ETA SALTOKA

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka*

*Materiala: CDa, jarduerak, 4. pista*

Kantatzeaz gainera, musikako lan-ordutan, dantza egitea ere komenigarria ikusten dugu. Proposatzen ditugun dantzak denok egiteko modukoak dira. Era honetako dantzak egiteko helburuetako bat erritmoa gorputzez bizitzea da. Sarritan, eta gehienetan, erritmoa soinuaz lantzen dugu, hau da, txaloz eta perkusiozko musika-tresnez. Dantzak erritmoari mugimendua jartzeko aukera eskaintzen digu, izan ere, garrantzitsua da ikusmenaren bidez erritmoa barneratzea.

Bi zati ditu dantza honek, eta **A** eta **B** deituko diegu.

### **A**

Kantari joan nintzen herri-eskolara,  
nire lagun guztiekin dantzan egitera.  
Uztaiak eta sokak, makilatxoak, pilotak,  
pozik ibili nintzen saltoka-saltoka.

### **B**

Bina-binaka, norgehiagoka,  
lagunak txandatuz txalo eta saltoka.  
Bina-binaka, norgehiagoka,  
lagunak txandatuz txalo eta saltoka.

## **KOREOGRAFIA:**

Binaka, elkarri begira eta biribila osatuz.

### **A**

. □ □ □ □

Lau beltzen denboran mugimendu hauek egingo ditugu.

- 1: txalo bat.
- 2: bularrean kolpe bat, baina bi besoak gurutzatuz.
- 3: norbere izterretan kolpe bat.
- 4: aurrean dugun lagunaren eskuak ukitu.

. □ □ □ □

txalo      bularra      belaunak      laguna

## B

. □□□□

Aurrean dugun lagunari gerritik helduz, hiru taupadetan eskuinerantz jira bat emanez eta laugarren taupadan, oinarekin, lurra ozenki kolpatuz.  
Beste hiru taupadetan ezkererantz biratuz eta laugarren taupadan, oinarekin, lurra ozenki kolpatuz.

. □□□□

ibili            ibili            ibili            lurra kolpatu

Eta horrelaxe sekuentzia amaitu arte.

## JULA-JULA FAKIR JAUNA

*Kudeakaeta mota: TH*

*Materiala: Jardueren Cd-a, 6. pista.*

### A

Mantso-mantso, goxo-goxo, dotore eta jator,  
JULA-JULA fakir jauna Katxemiratik dator.

Tzunpa, tzunpa, tzunpapa,  
tzunpa, tzunpa, tzunpapa.  
Tzunpa, tzunpa, tzunpapa,  
tzunpa, tzunpa, tzunpapa.

### B

JULA-JULA JA, makurka gerriak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka gerriak KRAK!

JULA-JULA JA, makurka belaunak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka belaunak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka gerriak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka gerriak KRAK!

JULA-JULA JA, makurka bizkarrak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka bizkarrak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka belaunak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka belaunak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka gerriak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka gerriak KRAK!

JULA-JULA JA, makurka kopetak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka kopetak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka bizkarrak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka bizkarrak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka belaunak KRAK!

JULA-JULA JA, makurka belaunak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka gerriak KRAK!  
JULA-JULA JA, makurka gerriak KRAK!

Tzunpa, tzunpa, tzunpapa,  
tzunpa, tzunpa, tzunpapa.  
Tzunpa, tzunpa, tzunpapa,  
tzunpa, tzunpa, tzunpapa.

“Jula-Jula fakir bat zen. Egunero, egunsentian, eguzkia irtetea erreztatzen hasten zen. Baina egun batean, erreztatzen ari zela, min handia hartu zuen”. Kantatu eta JULA-JULA fakirra imitatuz ondo pasatzeko prestatu dugun abestia da hau. Fakirrak bezala mozarrotu gintezke. Badakizue, turbantea eta hori guztia. Katxemiratik etorritako fakirrak gara guztiok.

**A**

Erritmoari jarraituz, biribilean ibili egingo gara.

**B**

Geldirik, korroko guztiak elkarri begira, besoak altxa eta JULA-JULA JA oihukatuz, makurraldi bereziak egingo ditugu. Eta atera kontuak: lehenengo makurraldian gerriak KRAK! Eta, gero, belaunak, eta bizkarrak, eta kopetak eta KRAK!

Aldi bakoitzeko KRAK!aren ondorengo ibilaldia keinu bereziak eginez burutuko da. Hau da, gerriari helduta, herrenka, bizkarra okertuta, kopetari utsiz...

Animo, eta txantxa piska bat!